

ATHLETIC CLUB EKO ESTATUTU SOZIALAK

ONESPEN DATA: 2022-05-23





AURKIBIDEA

I. TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA- IZENA ETA ARAUDI JURIDIKOA
2. ARTIKULUA- EGOITZA SOZIALA ETA WEB ORRIALDE OFIZIALA
3. ARTIKULUA- HELBURU SOZIALA ETA BALIOAK
4. ARTIKULUA- IRAUPENA
5. ARTIKULUA- LURRALDE-EREMUA
6. ARTIKULUA- EZAUGARRIAK

II. TITULUA- BAZKIDEAK

7. ARTIKULUA- BAZKIDE MOTAK
8. ARTIKULUA- OHOREZKO BAZKIDEAK
9. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOAK
10. ARTIKULUA- BAZKIDE OSO ADINGABEAK
11. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOEN SARRERA
12. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOAREN IZAERA GALTZEA ETA BORONDATEZKO ETENDURA
13. ARTIKULUA- BAZKIDEEN ESKUBIDEAK
14. ARTIKULUA- BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

III. TITULUA- KLUBEKO ORGANOAK

15. ARTIKULUA- XEDAPEN OROKORRAK

I. ATALBURUA BATZAR NAGUSIA

16. ARTIKULUA- BATZAR NAGUSIA ORGANO SUBIRANOA DEN ALDETIK. MOTAK
17. ARTIKULUA- OSOKO BILTZARRAREN ESKUMENAK
18. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZARRAREN ESKUMENAK
19. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZARRAREN OSAERA
20. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZAR MOTAK
21. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN OHIKO BATZARRA



- 22. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN EZOHICO BATZARRA
- 23. ARTIKULUA- DEIALDIAREN IEKIMENA
- 24. ARTIKULUA- DEIALDIA EGITEKO ERA
- 25. ARTIKULUA- BATZARRA EGITEKO LEKUA
- 26. ARTIKULUA- BATZARREAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA
- 27. ARTIKULUA- BATZAR NAGUSIRA JOATEKO ORDEZKARITZAREN ESKUORDETZA
- 28. ARTIKULUA- BATZARRA OSATZEKO QUORUMA
- 29. ARTIKULUA- BATZARREKO PRESIDENTETZA ETA IDAZKARITZA
- 30. ARTIKULUA- BILDUTAKOEN ZERRENTA
- 31. ARTIKULUA- BATZARRAREN GIDARITZA ETA GARAPENA
- 32. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN INFORMAZIO ESKUBIDEA
- 33. ARTIKULUA- ERABAKIAK HARTZEARI BURUZKOA
- 34. ARTIKULUA- BATZAR NAGUSIEN AKTAK

II. ATALBURUA ZUZENDARITZA-BATZORDEA

- 35. ARTIKULUA- ORGANOAREN IZAERA
- 36. ARTIKULUA- OSAERA
- 37.-ARTIKULUA- HAUTAKETA
- 38. ARTIKULUA- BATZORDEKIDE IZATEKO BETEKIZUNAK
- 39. ARTIKULUA- AGINTALDIAREN IRAUPENA ETA BERRAUTAKETA
- 40. ARTIKULUA- BETE GABEKO KARGUAK. KOOPTAZIO BIDEZKO ESTALDURA
- 41. ARTIKULUA- PRESIDENTEA
- 42. ARTIKULUA - PRESIDENTEORDEA
- 43. ARTIKULUA- IDAZKARIA
- 44. ARTIKULUA- IDAZKARIORDEA
- 45. ARTIKULUA- DIRUZAINA
- 46. ARTIKULUA- DIRUZAINORDEA
- 47. ARTIKULUA- BATZORDEKIDEAK
- 48. ARTIKULUA- DEIALDIA, ERAKETA-QUORUMA ETA AKORDIOAK HARTZEA
- 49. ARTIKULUA- ORDEZKARITZA
- 50. ARTIKULUA- EZTABAIDEN ISILPEKOA ETA ERABAKIEN IRAGARPENA



51. ARTIKULUA- ZUZENDARITZA-BATZORDEKO ETA BESTE ORGANO SOZIAL BATZUETAKO KIDEEN ERANTZUKIZUNA

52. ARTIKULUA- BILKURETAKO AKTAK

53. ARTIKULUA- ESKUMENAK

54. ARTIKULUA- KOMITEAK ETA BATZORDEAK SORTZEA

55. ARTIKULUA- ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN KARGU-UZTEA

56. ARTIKULUA- ZENTSURA-MOZIOA ETA KONFIANTZA-ARAZOA

III. ATALBURUA.- BESTE ORGANO BATZUK

57. ARTIKULUA- DIZIPLINA-BATZORDEA ETA APELAZIO-BATZORDEA

58. ARTIKULUA- ZUZENDARITZA NAGUSIA

59. ARTIKULUA- BAZKIDEEN DEFENTSA ERAKUNDEA

60. ARTIKULUA- KONTROL, GARDENTASUN ETA GOBERNU ONEKO BATZORDEA

IV. TITULUA- ARAUBIDE EKONOMIKOA

61. ARTIKULUA- AURREKONTUAREN ETA ONDAREAREN ARAUBIDEA

62. ARTIKULUA- EKITALDI EKONOMIKOAREN IRAUPENA

63. ARTIKULUA- URTEKO KONTUAK

64. ARTIKULUA- MOZKINEN BANAKETA

V. TITULUA- HAUTESKUNDE-ARAUBIDEA

65. ARTIKULUA- HAUTAKETA

66. ARTIKULUA- HAUTAGAI-ZERRRENDAK, ONDOREN SORTUTAKO INGURUABARRENGATIKO BAJAK

67. ARTIKULUA- HAUTESLE IZATEKO BETEKIZUNAK

68. ARTIKULUA- KUDEAKETA-BATZORDEA

69. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE-PROZESUAREN HASIERA

70. ARTIKULUA- HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA

71. ARTIKULUA- DEIALDIAREN ARGITALPENA ETA INFORMAZIOA

72. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE-BATZORDEA

73. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE PROZESUA

74. ARTIKULUA- BOZKETA



75. ARTIKULUA- POSTA BIDEZKO EDO BITARTEKO ELEKTRONIKOZ BOZKATZEA

76. ARTIKULUA- BOTO-ZENBAKETA

77. ARTIKULUA- HAUTAGAITZA IRABAZLEAREN JAKINARAZPENA ETA KARGUAZ JABETZEA

VI. TITULUA- DIZIPLINA-ARAU BIDEA

78. ARTIKULUA- KLUBAREN DIZIPLINA-AHALA

79. ARTIKULUA- DIZIPLINA-AHALA ERABILTZEKO ESKUMENA DUTEN ORGANOAK

80. ARTIKULUA- ARAU-HAUSTEAK

81. ARTIKULUA- ZEHAPENAK

82. ARTIKULUA- ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN PRESKRIPZIOA

83. ARTIKULUA- DIZIPLINA-PROZEDURA

84. ARTIKULUA- ZEHAPENEN AURKAKO HELEGITEAK

85. ARTIKULUA- ZEHAPENEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOA

VII. TITULUA- DOKUMENTUEN ARAUBIDEA

86. ARTIKULUA- KLUBAREN ERREGISTRO DOKUMENTALAK

VIII. TITULUA- ERREFERENDUMA ETA BESTE PARTAIDETZA-PROZESU BATZUK

87. ARTIKULUA- ERREFERENDUMA

88. ARTIKULUA- KONTSULTA EZ-LOTESLEA

89. ARTIKULUA- BESTE PARTAIDETZA-PROZESU BATZUK

IX. TITULUA- KLUBA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

90. ARTIKULUA- DESEGITEAREN ARRAZOIAK

91. ARTIKULUA- LIKIDATZAILEAK IZENDATZEA

92. ARTIKULUA- LIKIDAZIO FASEA

93. ARTIKULUA- SOZIETATEAREN ONDASUNAK BANATZEA

94. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZARRARI INFORMAZIOA EMATEA

95. ARTIKULUA- IRAUNGITZEA



XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA- ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ERREFORMATZEA

BIGARRENA- ERREGELAMENDUAK

HIRUGARRENA- ESTATUTUAK LEGEZKO ETA ERREGELAMENDUZKO XEDAPEN BERRIETARA EGOKITZEA

LAUGARRENA- BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK ETA BAZKIDEEI LAGUNTZA EMATEA

BOSGARRENA- BAZKIDEEEN ARTEKO ELKARTE-HARREMANA SUSTATZEKO TRESNAK

SEIGARRENA- GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOA

ZAZPIGARRENA- GOBERNANTZA ONA

ZORTZIGARRENA- ATHLETIC CLUBEN TXARTEL DIGITALA

BEDERATZIGARRENA- KLUBAREN DOKUMENTAZIOA DIGITALIZATZEA

HAMARGARRENA- HIZKUNTZA OFIZIALAK. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

HAMAIKAGARRENA- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA. SEXUAGATIKO ETA GENEROAGATIKO DISKRIMINAZIOK EZ

HAMABIGARRENA- EGUN BALIODUNAK ETA BALIOGABEAK

HAMAHIRUGARRENA- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO FUTBOLA

HAMALAU GARRENA- KIDETZA, ABONAMENDUAK ETA SARRERAK

HAMABOSGARRENA- ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN ERANTZUKIZUNA EMAITZA EKONOMIKO NEGATIBO ETA ABAL-ARAU BIDEAGATIK

HAMASEIGARRENA- ORGANO INDEPENDENTEENTZAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

HAMAZAZPIGARRENA- HAURREN BABESA

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENENGOA- DIZIPLINA-ESPEDIENTEAK

BIGARRENA- KLUBAREN EGUNEKO ZENBATEKOA URTEKO KUOTAN SARTZEA

HIRUGARRENA- KONPROMISARIOEN BATZARREKO KIDEEEN AGINTALDIA AMAITZEA

LAUGARRENA- KONTULARIAREN KARGUA KENTZEA

BOSGARRENA- POSTA BIDEZKO BOTOA



SEIGARRENA- PROTOKOLO OFIZIALETIK KANPO EGINDAKO ESERLEKU-TXARTELEN LAGAPENA ERREGULARIZATZEA

ZAZPIGARRENA- BANKU-HELBIDERATZEKO EDO ORDAINKETA-SISTEMA ELEKTRONIKOAK ERABILTZEKO ZUZENDARITZA-BATZORDEAK ERABAKITAKO GEHIENENKO EPEA

ZORTZIGARRENA- ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

LEHENENGOA- INDARREAN DAUDEN ESTATUTUAK INDARGABETZEA

BIGARRENA- KLAUSULA INDARGABETZAILE OROKORRA

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA- INDARREAN SARTZEARI BURUZKOA

BIGARRENA- HUTSUNEAK INTEGRATZEA ETA ESTATUTUAK ETA ERREGELAMENDUAK INTERPRETATZEA



I. TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA- IZENA ETA ARAUDI JURIDIKOA

- 1.- ATHLETIC CLUB 1898an egindako fundazio-akordioaren bitartez sortu zen, eta Euskadiko kirol araudiaren arabera arautuko da, ekainaren 22ko 163/2010 dekretuaren arabera, kirol klubei eta kirol elkarteei buruzkoa, edo ordeztzen duen araua, indarrean dauden gainerako legezko xedapenen arabera, bere Estatutuen eta Erregelamendu zehatzen arabera eta bere organuek hartutako akordioen arabera.
- 2.- Era berean, Kluba atxikita dagoen kirol federazioen xedapenak ere aplikagarriak izango dira, atxikipen hori dela-eta bidezkoa den guztian.

2. ARTIKULUA- EGOITZA SOZIALA ETA WEB ORRIALDE OFIZIALA

- 1.- ATHLETIC CLUBen Egoitza Soziala Bilbo hirian dago (Bizkaia), Ibaigane Jauregi izenekoan, Mazarredo Zumarkaleko 23an. Egoitza soziala lekuz aldatzeko, helbide sozial berria Bizkaiko Lurralde Historikoan egon beharko da, eta lekualdaketa hori Klubeko Konpromisarioen Batzarrak onartu beharko du, Zuzendaritza-Batzordeak proposamen arrazoitua egin ondoren.
- 2.- Klubaren webgune ofiziala www.athletic-club.eus da. Klubaren domeinu hori aldatzea edo ezabatzea Konpromisarioen Batzarraren eskumena izango da Zuzendaritza-Batzordeak proposamen arrazoitua egin ondoren. Ez da estatutu-aldaketatzat hartuko beste hedapen bat edo batzuk erabiltzea.
- 3.- Honako hauek bermatuko dira: webgunearen segurtasuna, webgune horretan argitaratutako agiriaren benetakotasuna, webgunerako doako sarbidea, bertan argitaratutakoa deskargatzeko eta inprimatzeko aukerarekin, salbu eta Klubaren jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak babesteko mugatu behar diren edukiak.
- 4.- Estatutuak eta erregelamenduak ezarritako betebeharrak betetz, Klubaren webguneko taula elektronikoan agiriak argitaratzen direnean, barne-prozedurei eta dagozkien epeei ekingo zaie, eta ondorio ofizialak izango ditu bazkideekiko harremanetan, baldin eta harreman horiek pertsonalak edo banakakoak ez badira. Klubak webguneko argitalpen ofizialen zabalkundea sustatu beharko du, alerten edo antzeko sistemen bidez.
- 5.- Zuzendaritza-Batzordeari dagokio webgunean agiriak argitaratu izanaren froga eta argitalpen hori egin den data kargatzea.
- 6.- Klubaren Zuzendaritza-Batzordeak webguneko taula elektronikoan eduki behar ditu estatutuen ondoretarako argitalpen ofizialak, Estatutu hauetan ezarritako epean, salbu eta etetea ezusteko edo ezinbesteko kasu baten ondorioz gertatu bada. Txertatutakoari Klubaren araudiak eskatzen duen epean eutsi zaiola egiaztatzeko, nahikoa izango da Klubaren



administrazio-organoaren deklarazioa, zuzenbidean onargarri den edozein frogaren bidez edozein interesdunek ezeztatu ahal izango duena.

7.- Webgunerako sarbidea eteten bada, nahitaezko dokumentazioa webgunean argitaratzen den egunen kopuruak Estatutu hauetan eskatzen den gutxieneko epearen berdina edo handiagoa izan beharko du.

3. ARTIKULUA- HELBURU SOZIALA ETA BALIOAK

- 1.- ATHLETIC CLUB irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta izaera juridiko propioa du. Bizkaiko Futbol Federazioan atxikita dago eta, hortaz, elkartearen helburu soziala da kirol guztiak, bereziki futbola, sustatzea eta egitea.
- 2.- ATHLETIC CLUB bere kirol-filosofia tradizionalarekiko errespetuan oinarrituko da bere jarduera garatzeko.
- 3.- Bere helburu soziala betetzeko, ATHLETIC CLUBek, besteak beste, honako jarduera hauek egingo ditu:
 - a) Kirol-lehiaketak antolatu eta horietan parte hartuko du.
 - b) Harrobiko futbola maila guztietan praktikatzea sustatuko du.
 - c) Ahal den guztietan, zuzenean esku hartuko du, Fundazioaren bidez edo hirugarren pertsona fisiko edo juridikoen bidez, gobernu- eta administrazio-organoek erabakitako gizarte-jardueretan; eta Klubaren dimentsio soziala bultzatuko du Euskal Herrian eta mundu osoan.
 - d) Bazkideen kultura fisiko, moral eta intelektualaren garapena sustatuko du, gizarte-harremanak eta haien arteko batasun-espirtua erraztuz.

4. ARTIKULUA- IRAUPENA

Klubaren iraupena mugagabea da.

5. ARTIKULUA- LURRALDE-EREMUA

ATHLETIC CLUBek parte hartzen duen kirol-lehiaketek edo jarduera osagarriek eskatzen dituzten jarduerak Estatuan eta nazioartean egiten ditu.



6. ARTIKULUA- EZAUGARRIAK

- 1.- ATHLETIC CLUBen armarrria eta bandera, klubaren jardueraren arabera egin daitezkeen egokitzapen kromatikoak alde batera utzi gabe, honako hauek dira:



- 2.- ATHLETIC CLUB taldeko gizonetako eta emakumeetako futboleko lehen taldeen lehen ekipamendua marra gorri eta zuri bertikalak dituen kamisetaz eta galtza beltzez osatuko da, atezainaren ekipamenduz gain.
- 3.- Estatutu hauen 17.a artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, Klubaren ezaugarritzat jotzen da, halaber, San Mames Estadioaren izena.

II. TITULUA- BAZKIDEAK

7. ARTIKULUA- MOTAK

- 1.- ATHLETIC CLUBeko bazkideak izan daitezke:
 - a) Ohorezko bazkideak.
 - b) bazkide osoak.
- 2.- Zuzendaritza-Batzordeak bere gain hartuko du bazkide berriak sustatzeko eta erakartzeko helburua, batez ere gazteen artean. Hala ere, edozein unetan eten ahal izango du bazkide oso berrien onarpena, justifikatutako arrazoiengatik. Eteteko erabaki hori Konpromisarioen lehenengo Batzarrak berretsi beharko du. Akordioa berresten ez bada, ondorioz gabe geratuko da.
- 3.- Bazkide oso guztiak berdina dira eskubide eta betebeharrei dagokienez, Klubak antolatzen dituen futbol-partidetara joateko kuota desberdina alde batera utzi gabe.
- 4.- Klubak une oro ahalbidetuko du, Klubaren webgune ofizialaren bidez, bazkide osoa edo konpromisarioa dela egiaztatzen duen txartel digitala elektronikoki deskargatzea.



8. ARTIKULUA- OHOREZKO BAZKIDEAK

- 1.- Ohorezko bazkidetzat hartuko dira Konpromisarioen Batzarrak izendatzen dituen pertsonak Zuzendaritza-Batzordeak hala proposatuta edo Estatutu hauen arabera bazkide osoen sinaduren ehuneko bi (%2) aurkezten duten bazkideak, Klubari egindako kirol-ekintza edo emandako zerbitzu nabarmenak aitortzeko.
- 2.- Ohorezko bazkideek eskubidea izango dute Klubak bere esparruetan antolatzen dituen kirol-ikuskizunetara askatasunez sartzeko.
- 3.- Ohorezko bazkidearen deklarazioa ezeztatzeko erabakia Konpromisarioen Batzarrak hartu beharko du, organo horren iritziz errelokazioa behartzen duten gertakari larriak gertatzen direnean.

9. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOAK

- 1.- Bazkide oso dira izaera horrekin ofizialki onartutako eskabideak dituzten pertsona fisiko guztiak, baldin eta, estatutuetako beste baldintza batzuk betetzeaz gain, dagozkien kuotak ordaindu badituzte.
- 2.- Bazkide oso guztien antzintasuna besterenezina da, eta Klubean sartzen diren azken egunetik aurrera hartuko da kontuan, eta Zuzendaritza-Batzordeak finkatuko du data hori.

10. ARTIKULUA- BAZKIDE OSO ADINGABEAK

Adinez nagusiak ez diren bazkide osoek ez dituzte izango adin nagusiko bazkideei aitortutako eskubide politikoak, bereziki hautesle eta hautagai izateko eskubidea, botoa emateko eskubidea eta Estatutu hauetan aurreikusitako elkarre-organotako kide izateko eskubidea.

11. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOEN SARRERA

- 1.- Bazkide osoa izateko, baldintza hauek bete behar dira:
 - a) Eskabidea, Klubak erraztuko duen inprimaki edo kanal elektronikoaren bidez.
 - b) Zuzendaritza-Batzordeak eskaera onartzea. Eskabidearen hurrenkeraren arabera onartuko dira. Ez onartzeko erabakia arrazoitua izango da, eta Zuzendaritza-Batzordeari aurkaratu ahal izango zaio hamabost (15) eguneko epean.
 - c) Une bakoitzean indarrean dauden txertatze-eskubideak ordaintzea; horien zenbatekoa Konpromisarioen Batzordeak finkatuko du. Ordainketa hori ez da bidezkoa izango hogeita bost (25) urteko edo gehiagoko antzintasuna duten bazkide osoek proposatutako lerro zuzeneko ondorengoen kasuan. Klubean jasotako eskabideek estadioaren edukiera dela-eta onartzeko aukerak gainditzen badituzte, antzintasun handiena duten pertsonen dagozkien eskaerei emango zaie lehentasuna. Aurreko ahaide bakoitzak ondorengo ahaide



bat sustatu ahal izango du hamar (10) urtean behin, eta kasu horretan, ezin izango da bazkide oso izaera eskualdatu hamar urtean.

d) Lehenetasunez eskuratzeko eskubidea duen pertsona bat izendatzea, artikuluko honetako bigarren paragrafoan arautzen dena, heriotzaren kasurako. Izendapen hori geroago aldatu ahal izango da. Klubak eredu bat eta dagozkion jarraibideak emango ditu.

2.- Bazkide osoa, oro har, pertsonala eta besterenezina da. Hala ere, honako kasu hauetan, bazkide oso izateko lehenetasun-eskubidea ezartzen da:

a) Bazkide batek bere borondatez kargua uzten badu, bazkide bihurtzen den unean edo geroago izendatzen duen pertsonaren alde, hirugarren mailaranoko senideen artean, lerro zuzenean nahiz zeharka, odolkidetasunagatik edo ezkontza-ahaidetasunagatik, edo haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen artean.

b) Bazkide bat hiltzen bada, testamendu-xedapenean edo Klubera postaz, aurrez aurre edo elektronikoki bidalitako agiri ofizialean bere nahitaezko oinordekoen artean izendatzen duen pertsonaren alde. Heriotza testamenturik gabe gertatzen bada, Klubari bidalitako agiri ofizialik gabe, edo testamentu baliogabearekin edo gero balioa galdu izana, edo baliozko testamentua egonda ere, bazkide izateko lehenetasun-eskubideari buruzko berariazko adierazpenik egiten bada, lehenetasunez eskuratzeko eskubidea iraungi egingo da. Nolanahi ere, lehenetasunez eskuratzeko eskubidearen titularrak edo oinordekoek Klubari jakinarazi beharko diote, modu frogagarrian, urte natural bateko (1) epean, bazkidea hil eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Jakinarazpen hori egiten ez bada, lehenetasunez eskuratzeko eskubidea ere iraungi egingo da. Izendapenen artean gatazkarik egonez gero, Klubaren aurrean egindako izendapen ofiziala gailenduko da beti, nahiz eta beste edozein agiri baino lehenagokoa izan.

Bi kasuetan, bazkide berriak ez ditu ordaindu beharko artikuluko honetako lehenengo paragrafoaren c) idatz-zatian adierazitako onarpen-eskubideak. Oinordetza eraginkorra izan dadin, lehenetasunez eskuratzeko eskubidea duen pertsona izendatu beharko da.

3.- Bazkide osoek, halaber, borondatezko uztearen edo heriotzaren kasuetarako, libre izendatu ahal izango dituzte erosteko lehenetasun-eskubidearen onuradunak, artikuluko honen bigarren atalean aurreikusitakoez bestelakoak. Lagapen hori doakoa izango da eta sarrera-kuota ordaintzetik salbuetsita egongo da, baldin eta bazkide osoak, kargua utzi badu edo hiltzen bada, hogeita bost (25) urteko edo gehiagoko antzintasuna badu.

4.- Aurreko paragrafoetan araututako oinordetza eta lagapenek antzintasuna galtzea ekarriko dute beti, eta, nolanahi ere, San Mames Estadioan dagokion eserlekua errespetatuko da.



12. ARTIKULUA- BAZKIDE OSOAREN IZAERA GALTZEA ETA BORONDATEZKO ETENDURA

1.- Bazkide osoaren izaera galtzen da:

- a) Nork bere borondatez, betiere Klubari baja idatziz jakinarazten bazaio. Jakinarazpen hori bitarteko elektronikoen bidez ere egin ahal izango da.
- b) Kuota soziala hogeita hamar egun naturaleko epean ez ordaintzeagatik, sortzen den egunetik zenbatzen hasita. Ez ordaintzeagatik galera hori Zuzendaritza-Batzordeak deklaratu beharko du, eta erabaki horren aurka helegitea aurkeztu ahal izango zaio Zuzendaritza-Batzordeari hamabost (15) eguneko epean. Epe hori amaitzen denetik aitorpen hori egin arte, bazkidearen eskubideak etenda geratuko dira.
- c) Diziplina Batzordearen erabakiagatik, huts oso larri bat egitean oinarritua, Estatutu hauetako VI. Tituluan ezarritako diziplina-prozedura bete ondoren.
- d) Heriotzagatik.

2.- Bazkide izaera gehienez ere bi (2) urtez eten ahal izango da, laneko, osasuneko, familiako eta antzeko inguruabarrek hala eskatzen badute, Zuzendaritza-Batzordeak ezartzen duen protokoloaren arabera. Etenaldi hori ez da antzinatasunerako zenbatuko. Epea amaitutakoan, antzinatasuna berriro zenbatuko da, eta etenaldia baino lehenagoko antzinatasuna finkatuko da. Eteteak esleitutako eserlekua mantentzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

13. ARTIKULUA - BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

1.- Bazkide guztien berdintasun-printzipioa ezartzen da, mota berekoak (osoak edo ohorezkoak), eta ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik.

2.- ATHLETIC CLUBeko Bazkide Osoen eskubideak dira, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuan, edo hori ordeztzen duen xedapena, Estatutu hauetan eta balizko garapen-erregelamenduetan ezarritako baldintza eta mugen barruan erabil daitezkeenak:

- a) ATHLETIC CLUBen helburu zehatzak lortzen parte hartzea, indarrean dagoen legerian eta estatutuetako xedapenetan eta erregelamenduetan ezarritakoaren arabera, eta helburu horiek betetzeko eskatzea.
- b) Bazkide osoa dela egiaztatzen duen txartel digitala eta, hala badagokio, akreditazio elektronikoa lortzea. Txartel digitala galduz edo lapurtuz gero, beste bat egingo da, eta bazkidearen kontura izango da.
- c) ATHLETIC CLUBetik libreki banatzea.
- d) ATHLETIC CLUBen jarduerak ezagutzea eta dokumentazioa aztertzea. Eta, bereziki, sozietatearen Urteko Kontuak eta auditoreen txostena aztertzea.



- e) Ohiko edo Ezohiko Batzar Nagusiak egin daitezen sustatzea, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
 - f) Informazioa eskubidea erabiltzea, Estatutu hauen arabera.
 - g) Klubaren baitan bere iritzia askatasunez adieraztea.
 - h) Hautesle eta hautagai izatea Klubeko ordezkaritza- eta gobernu-organoetarako, baldin eta adin nagusitasun zibila bete bada, Klubeko Erroldan badago Estatutu hauetan ezarritako baldintzak bete ondoren eta gaitasun juridiko osoa badu, indarreko legerian ezarritakoaren arabera.
 - i) Beren aurkako diziplina-neurriak hartu aurretik entzunak izateko eskubidea, eta neurri horiek sorrazten dituzten egitateen berri emateko eskubidea; hala badagokio, zehapena ezartzen duen erabakia arrazoitu egin beharko da.
 - j) Klubeko organoen erabakiak aurkaratzeko eskubidea, legearen edo Estatutuen eta Erregelamenduen aurkakoak direla uste badute.
 - k) Desgaitasunen bat izanez gero, San Mames estadioan birkokatzea, bere beharrian pertsonalen eta Klubaren aukeren arabera.
 - l) Klubak desgaitasuna duten pertsonen San Mames estadioan eta Klubak antolatutako ekitaldietan behar besteko laguntza-zerbitzua emateko eskubidea.
 - m) Batzar Nagusira joateko eskubidea erabiltzea, bertara joanda edo bitarteko elektronikoen bidez, Estatutuetan horretarako ezarritako baldintzak betetzen direnean.
 - n) Klubarekin harremanetan jartzeko modu presentziala edo elektronikoa aukeratzea, eragin indibiduala edo pertsonala duten komunikazioei dagokienez, eta ez Klubaren komunikazio orokorreko ekintzak bazkide guztientzat.
 - o) Zuzendaritza-Batzordeak laugarren xedapen gehigarriaren babesean sortutako bulegoko zerbitzuetara sartzea, bazkideen eskubideak bitarteko elektronikoen bidez egikaritzeko.
 - p) Klubera joan eta aukeratu nahi duten edozein hizkuntza ofizialean erantzun egokia lortu.
 - q) Gai-zerrendari buruzko galderak egitea, Konpromisarioen Batzarrean erantzun daitezen, nahiz eta konpromisario ez izan. Eskubide hori Zuzendaritza-Batzordeak Estatutu hauek garatzeko Erregelamendu Organikoaren arabera deialdian erabakitzen duen prozeduraren arabera baliatuko da.
 - r) Eta, oro har, lege-xedapen bidez edo Estatutu hauen bidez aitortzen zaizkion eskubide guztiak.
- 3.- Bazkide oso guztiek San Mames estadioan eta Ligako eta Kopako lehiaketa ofizialeko beste esparru batzuetan gizonetako zein emakumetako taldeek jokatzen dituzten futbol-partidetara



sartzeko eskubidea dute. Hori guztia Estatutu hauek garatzeko araudian ezarritako baldintzetan.

4.- Bazkide oso guztiek eskubidea dute Klubak antolatutako kirol-ikuskizun eta ekitaldi bakoitzean jada esleitutako eserlekua San Mamesen okupatzeko.

14. ARTIKULUA.- BAZKIDEEN BETEBEHARRAK

1.- Bazkide osoen betebeharrak dira:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak ezartzen dituen kuota sozialak, ordainparteak eta aparteko ekarpenak ordaintzea, Konpromisarioen Batzarrek aldeztu aurretik hala erabakita.
 - b) Estatutuak, erregelamenduak eta Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak onartzea.
 - c) Klubak antolatutako kirol-ikuskizun eta ekitaldi bakoitzean jada esleitutako eserlekua okupatzea, eta Zuzendaritza-Batzordeari beharrezko aldaketak egiteko aukera ematea, estadioko eremu bakoitzaren eraginkortasun handienaz arduratzeko, lehiaketa ofizialen beharrei, segurtasun-irizpideei, azpiegituren hobekuntzei eta antzeko beharrei erantzuteko, honako irizpide hauen arabera:
 - Behar bezala arrazoitutako aparteko arrazoiengatik egin beharko dira aldaketak.
 - Bazkideari eserleku baliokideak esleitu behar zaizkio, Klubari aitortutako taldeak errespetatuz.
 - Bazkideari konpentsazio ekonomikoa eman beharko zaio udalerrri baliokiderik esleitu ezin zaionean.
- Betebihar hori ez da urratutzat joko eserlekua beste pertsona batekin borondatez trukatzeko.
- d) Bazkide osoaren txartel digitala edo akreditazio elektronikoa aurkeztea, bai eta Klubak kirol-ikuskizunetara eta Klubak antolatutako ekitaldietara sartzeko eskatzen dituen gainerako agiriak ere.
 - e) Identifikazio biometrikoa edo identifikazio pertsonaleko antzeko edozein sistema teknologiko baimentzea, Klubak antolatutako kirol-ikuskizunetara edo ekitaldietara sartzeko.
 - f) ATHLETIC CLUBen egoitza onartzea, Bazkideak Klubarekin izan ditzaketen gorabeheretan eskumen judizialaren erabakigarri gisa; eta ondore horietarako, Bazkidearen eskumenari uko egin diola ulertuko da.
 - g) Txartel digitala eta akreditazio elektronikoa norberak erabiltzea, hirugarrenei lagatzeko baimenik gabe, salbu eta Klubeko partidetara joateko.



- h) Klubari ordaindu beharreko kuoten ordainketak bankuan helbideratzea edo Zuzendaritza-Batzordeak onartzen duen antzeko beste edozein ordainketa-sistema elektronikoki erabiltzea.
 - i) Klubari emandako datuak eguneratzea, baldin eta datu horiek aldatzen badira.
 - j) Oro har, Klubaren helburuak partekatzea eta helburu horiek lortzen laguntzea.
- 2.- Kuota sozialak urtero eguneratuko dira automatikoki, aurrekontua luzatu edo ez, Konpromisarioen Batzarrak dagokion ekitaldirako bestelako eguneratzerik erabaki ezean. Eguneratze automatikoa Euskadiko Kontsumoko Prezioen Indizearen ehuneko berrogeita hamarrean (%50) oinarrituko da. Indize hori Estatistikako Institutu Nazionalak edo hori ordeztzen duen indizeak ezartzen du, eta argitaratutako aurreko bost (5) ekitaldien arteko batez bestekoa izango da.

III. TITULUA- KLUBEKO ORGANOAK

15. ARTIKULUA- XEDAPEN OROKORRAK

- 1.- Klubaren subiranotasuna eta gobernua bazkideei dagokie, Batzar Nagusiaren bitartez, eta bi modalitate izango ditu:
 - a) Osoko Biltzarra
 - b) Konpromisarioen Batzarra.
- 2.- Urtebeteko antzinatasuna duten eta Estatutu hauetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituzten adin nagusiko bazkide oso guztiek osatuko dute Osoko Biltzarra. Osoko Biltzarrari aplikatuko zaizkio Konpromisarioen Batzarraren xedapen guztiak, baldin eta bateraezinak ez badira bere izaera bereziarekin, hau da, erabakiak hartzeko biltzen eta eztabaida-tzen ez den organoarekin.
- 3.- Bazkide osoen ordezkaritza Konpromisarioen Batzarrean zehazten da. Batzar hori botoa emateko eskubidea duten bazkide oso guztiek osatuko dute, Estatutu hauetan garatutako ordezkaritzaren bidez, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- 4.- Presidentea Klubaren-ordezkaritza organoa da.
- 5.- Zuzendaritza-Batzordea Klubaren administrazio organoa da.
- 6.- Konpromisarioen Batzarraren eta Zuzendaritza-Batzordearen funtzionamenduaren arauketa zehatza erregelamendu bidez egingo da, eta bereziki baldintzak eta bermeak kontuan hartuko dira bazkideek bertaratzeko eskubidea Estatutuetan aurreikusitako modu guztietan erabili ahal izateko eta Konpromisarioen Batzarrean modu ordenatuan parte hartzeko.



I. ATALBURUA BATZAR NAGUSIA

16. ARTIKULUA- BATZAR NAGUSIA, ORGANO SUBIRANOA DEN ALDETIK. MOTAK

Batzar Nagusia, bai Osoko Biltzarrean bai Konpromisarioen Batzarrarean Klubaren organo subiranoa da eta haren erabakiek, balio osoz hartutakoek, bazkide guztiak behartzen dituzte, baita bertaratu ez direnak, disidenteak eta botorik ez ematen duten bazkideak ere eta, besteak beste, Klubaren gobernu-jarraitbideak eztabaidatu eta onartzeko eginkizuna du.

17. ARTIKULUA- OSOKO BILTZARRAREN ESKUMENAK

1.- Osoko Biltzarraren eskumen eskusiboak dira honako gai hauek eztabaidatu eta onartzea:

- a) Estatutuak aldatzea, izendapenari, helburu sozialari eta balioei, iraupenari, lurralde-eremuari, Klubaren ezaugarriei eta Osoko Biltzarraren, Konpromisarioen Batzarraren eta Zuzendaritza-Batzordearen eskumenei dagokienez.
- b) Klubeko Presidente eta Zuzendaritza-Batzordea hautatzea.
- c) Garrantzi bereziko gaietarako erreferendum lotesleak egitea.
- d) Hasieran Konpromisarioen Batzarrari dagozkion eskumenak erabiltzea, Batzar horrek Osoko Biltzarrara bidaltzea erabakitzen badu, Estatutu hauetan ezarritako prozeduren bidez.
- e) Kluberako plan estrategikoak onartzea.
- f) San Mames Estadioa erostea onartzea, edo ondoren saltzea, eta egoitza soziala dagoen eraikina eta Klubaren kirol-instalazioak besterentzea eta zergapetzea.
- g) San Mames Estadioaren izena aldatzea. Ez da beharrezkoa izango estatutuak aldatzea izendapen nagusi horri "merkataritza abizen" bat gehituz gero.
- h) Eraldaketa, bat-egitea, zatiketa eta desagitea onartzea.
- i) Zuzendaritza-Batzordearen aurkako zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa onartzea.

2.- Gai horietan Osoko Bilkurak hartutako erabakiak ez dira baliozkoak izango, baldin eta boto-eskubidea duten bazkideen ehuneko hogeita hamar (%30) edo gehiago ez badago.

18. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZARRAREN ESKUMENAK

Konpromisarioen Batzarraren eskumen eskusiboak izango dira honako gai hauek eztabaidatu eta ebaztea:

- a) Zuzendaritza-Batzordearen urteko kudeaketa onartzea aurreko ekitaldi ekonomikoan.
- b) Aurreko ekitaldi ekonomikoetako urteko kontu ikuskatuak onartzea.



- c) Klubaren aurrekontuak onartzea, erakunde eskudunek baliozkotuta, kontabilitate-ekitaldi bakoitzerako. Aurrekontuak kapitulu bereziak izan beharko ditu gastu arrunterako eta urteko eta urte anitzeko inbertsioetarako.
- d) Zuzendaritza-Batzordearen proiektuak eta proposamenak onartzea, bai eta bazkideen proposamenak onartzea ere, betiere horiek babesten badira, bai eskuz egindako sinadura bidez, bai Klubak gaitu behar dituen bitarteko elektronikoen bidez, Konpromisarioen Batzarrean botoa emateko eskubidea duten kideen gutxienez ehuneko hamarrek (%10), edo botoa emateko eskubidea duten bazkide osoen ehuneko bik (%2). Estatutu hauetako 23. artikuluan aurreikusitako moduan izapidetuko dira proposamen horiek.
- e) Bazkideentzako kuota arrunten zenbatekoa finkatzea, aldaketak Euskadiko Kontsumoko Prezioen Indizearen aldakuntza-ehunekoa azken aldakuntzatik aurrera aplikatzeagatik balioa berrezartzea beste helbururik ez duenean izan ezik, Estatutu hauetako 14. artikuluan aurreikusitako moduan.
- f) Zuzendaritza-Batzordeari baimena ematea kirol-lantaldearekin zerikusirik ez duten ekintzak egiteko, onartutako aurrekontuko gastu- eta inbertsio-aurreikuspenak gainditzen badituzte. Aurrekontuaren ehuneko hamar (%10) gainditzen bada eskatu beharko da baimena.
- g) Bazkide osoek egin beharreko ordainparteak eta/edo aparteko ekarpenak onartzea.
- h) Maileguan dirua ematea eta hartzea, baldin eta mailegua onartutako azken gastu-aurrekontuaren ehuneko hamarretik gorakoa bada (%10), eta Zuzendaritza-Batzordeak eragiketa horiek egiteko baimena zein kasutan eta baldintzatan duen ezartzea.
- i) Obligazioen, bonuen edo antzeko beste titulu batzuen jaulkipena onartzea, bihurtgarriak edo trukagarriak izan edo ez, sinpleak, hipotekazkoak, interes finko edo aldakorrekakoak, eskudirutan edo espezetan edo errentagarritasuneko edo loturako, modalitateko edo ezaugarrietako beste edozein baldintzatan sina daitezkeenak, eta Zuzendaritza-Batzordeari jaulkipen horiek egiteko baimena ematea, horien baldintzak eta ezaugarriak finkatuta.
- j) Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Oneko Batzordeko, Hauteskunde Batzordeko, Diziplina Batzordeko, Apelazio Batzordeko eta Bazkideen Defentsa Erakundeko kideak izendatzea.
- k) Zuzendaritza-Batzordeak Estatutuen inguruan egiten duen interpretazioa berrestea edo zuzentzea.
- l) Erregelamenduak onartzea eta aldatzea.
- m) Estatutu hauetako 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Zuzendaritza-Batzordean sortzen diren bete gabeko postuak ordeztzen dituzten batzordekideen izendapena berrestea.
- n) Zuzendaritza-Batzordearen proposamenez eratutako sozietate, elkarte edo fundazioen eraketa berrestea. Zuzendaritza-Batzordeak sorreraren xedearen berri emango du, eta



ondorengo ekitaldietan bere jardueren, Klubarentzat garrantzitsuak diren erabakien eta bere kontabilitate-egoeraren berri emango du, Klubaren beraren egoera finkagarria izan edo ez.

- o) Zuzendaritza-Batzordeak edo Konpromisarioen Batzarreko kideen ehuneko hamarrek (%10) edo bazkide osoen ehuneko bik (%2) proposatuta, Ohorezko Bazkideen izendapena onartzea.
- p) Konpromisarioen iritzia ezagutzea hitz egiteko txanda irekian, Batzarra egiteko araudiaren arabera.
- q) Legezko xedapenez edo Estatutu hauen bidez Konpromisarioen Batzarrarentzat gordetako beste edozein gairi buruzko iritzia ematea.
- r) Bere eskumeneko erabakiak Osoko Biltzarraren erabakiaren mende jartzea.
- s) San Mames Estadioaren izendapenari "merkataritza abizena" gehitzea onartzea.

19. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZARRAREN OSAERA

- 1.- ATHLETIC CLUBEKO bazkide osoen kopurua bost mila (5.000) baino handiagoa bada, Batzar Nagusia modu murriztuan garatu ahal izango da Konpromisarioen Batzarraren bidez. Batzar hori bazkide osoek osatuko dute, artikulua honetan eta garapen-araudian zehaztutako prozeduraren arabera izendatuta. Klubeko bazkide osoen kopurua bost mila (5.000) baino txikiagoa bada, Klubak Batzar Nagusi baten bidez funtzionatuko du. Batzar hori bazkide oso guztiek osatuko dute, eta urtebeteko (1) antzintasuna izango dute.
- 2.- Konpromisarioen Batzarra zati batean urtero berrituko da. Konpromisarioak izendatzeko Hauteskunde-Batzordeak zerrenda bat egingo du. Bertan, adinez nagusiak diren bazkide oso guztiak sartuko dira, Klubean etenik gabeko urtebeteko (1) antzintasunarekin, urte bakoitzeko martxoaren hamabostean (15). Zerrenda horretan, izen abizenak, bazkide eta kode zenbakia, jaiotze-data eta Klubean sartu zeneko data adierazi beharko dira. Zerrenda hori Klubeko iragarki-taula elektronikoan jarriko da ikusgai, dagokion urteko martxoaren hamaseitik (16) hogeita hamarrera (30).
- 3.- Zerrenda horren berri emango zaie bazkideei, Klubeko iragarki-taula elektronikoan argitaratuz, eta iragarki horretan adieraziko da zerrenda horretan agertzen ez diren bazkideek edo filiazio edo datu okerrak dituztenek apirilaren hamarrera (10) arteko epea izango dutela, egun hori barne, Hauteskunde-Batzordeari erreklamazioak aurkezteko. Era berean, zerrendaren argitalpenaren hedapen osagarria egiten saiatuko da.
- 4.- Hauteskunde-Batzordeak egindako zerrendan dagoen bazkide oso oro aurkeztu ahal izango da Konpromisarioen Batzarrean parte hartzeko, baldin eta bere burua aurkezten duen bazkidearen baldintza berak betetzen dituzten beste bederatzi bederatzi (9) bazkidek



abalatzen badute eskaera. Abalak aurkezteko epea Hauteskunde-Batzordeak ezarriko du, baina ezin izango da hogeita hamar (30) egunetik beherakoa izan.

- 5.- Eskabidea eta abalen bilketa eta aurkezpena aurrez aurre edo elektronikoki egin ahal izango dira, Klubak interesdunen eskura jartzen duen eredu ofizialean. Bazkide oso batek beste bazkide oso bat abalatu badu bere sinadurarekin, ezin izango du beste abal bat egin. Debeku hori ez betetzeak abal bikoiztu horiek baliogabetzea ekarriko du. Abalak eskatzeko, jasotzeko eta aurkezteko sistema erregelamendu bidez arautuko da.
- 6.- Eredu ofiziala Klubak emango du paperean eta euskarri elektronikoa, eta eredu bakoitzak abal bat edo gehiago izan ditzake. Hautagai bakoitzak atal honetan adierazitako aukeren bidez lortutako abalak aurkeztu ahal izango ditu. Hautagaitza aurkezteko eredu ofizialean, gutxienez, hautagaitza aurkezten duen bazkidearen izena, abizenak eta sinadura jaso beharko dira, eta aurkezten denak bazkide osoa dela egiaztatzen duen ziurtagiri elektronikoa aurkeztu beharko du.
- 7.- Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Hauteskunde-Batzordeak egingo du izendapena, eta emaitza Klubeko iragarki-taula elektronikoa argitaratuko da. Konpromisario gisa izendatutako pertsonen eta abal-emaleen jakinaraziko zaie gutun ziurtatu bidez edo posta elektronikoa bidez izendapenaren berri emateko, abal-emaleari aukera ematea zein abal egozten zaizkion jakiteko eta abala jaso duen pertsona konpromisario izendatzeko.
- 8.- Bazkide konpromisarioen izendapenari buruz egin daitezkeen erreklamazioak zazpi (7) egun naturaleko epean egingo dira, izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, helegite arrazoitua aurkeztuko zaio Hauteskunde-Batzordeari, eta hark zazpi (7) eguneko epean emango du ebazpen apelaezina, helegite hori jasotzen duenetik aurrera.
- 9.- Bazkide konpromisarioak bost (5) urterako aukeratuko dira; agintaldia aukeratzen diren urteko uztailaren 1ean hasiko da, eta agintaldia hasi eta hurrengo bosgarren urteko ekainaren hogeita hamarrean (30) amaituko da.
- 10.- Bazkide konpromisarioek uko egin diezaiokete beren karguari. Era berean, behar bezala egiaztatutako justifikaziorik gabe bi (2) batzarretan parte hartzen ez badute, izaera hori galduko dute. Diziplina-izaerarik gabeko izaera hori galtzea Hauteskunde-Batzordeak erabakiko du, konpromisarioa entzuteko izapidea egin ondoren, eta galera horrek eragotzi egingo du kargua galtzea gertatu eta bost (5) urteetan.
- 11.- Konpromisarioek ez dute agintaldi-mugarik, eta, beraz, aurreko agintaldia amaitu ondoren ere izan dezakete izaera hori.
- 12.- Konpromisarioen jarduera-araubidea eta haien eskubideen eta betebeharren araubidea Klubaren Erregelamendu Organikoan zehaztuko dira.
- 13.- Halaber, Konpromisarioen Batzarrean parte hartzeko eskubidea izango dute, hitzez baina botorik gabe, Gai-zerrendako puntuen barruan:



- a) Zuzendaritza-Batzordeko kideek.
- b) Erakundeko presidente ohiek, bazkide izaera galdu ez badute.
- c) Ohorezko bazkideek.
- d) Antzinasun handieneko ehun (100) bazkideren artean dauden eta konpromisario izendapena lortu ez duten bazkideak.
- e) Honako organo hauetako kideek: Bazkideen Defentsa Bulegoa eta Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordea. Kasu horretan, euren txostenen arabera baino ezin izango dute esku hartu.

20. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN BATZAR MOTAK

- 1.- Konpromisarioen Batzarrak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.
- 2.- Konpromisarioen Ezohiko Batzar bat Ohiko Batzarraren egun berean ere egin ahal izango da, Batzarra egin eta berehala. Aurrekoak ez dio kalterik egingo Zuzendaritza-Batzordeak Ohiko Batzarraren Gai-zerrendan nahitaez Ohiko Batzarrean aztertu beharreko gai gehigarriak sartzeko aukerari.

21. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN OHIKO BATZARRA

- 1.- Konpromisarioen Ohiko Batzarra izango da, honako gai hauek nahitaez eztabaidatzea helburu duena, eta bakoitzak bere aldetik bozkatuko dira:
 - a) Aurreko ekitaldi ekonomikoko Urteko Kontuak onartzea, hala badagokio.
 - b) Zuzendaritza-Batzordearen Kudeaketa onartzea, hala badagokio, aurreko ekitaldi ekonomikoan.
 - c) Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak baliozkotutako aurrekontua onartzea, hala badagokio.
 - d) Estatutu hauetako 18. artikuluan zerrendatutako gaiak, urteko ekitaldi ekonomikoari lotutakoak, onartzea.
- 2.- Konpromisarioen Ohiko Batzar horretan beste gai batzuk ere aztertu eta bozkatu ahal izango dira, osagarri gisa:
 - a) Ordainparteak eta aparteko ekarpenak onartzea.
 - b) Zuzendaritza-Batzordearen proiektuak eta proposamenak.
 - c) .Estatutu hauetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu diren Bazkideen proposamenak.



d) Gai-zerrendan agertzen den beste edozein gai, baldin eta kasu bakoitzean legez edo estatutuz eskatzen den Bazkide-kopurua badago.

3.- Konpromisarioen Ohiko Batzarra urte bakoitzeko uztailaren 1etik urriaren hogeita hamaikara (31) bitartean egin beharko da nahitaez.

22. ARTIKULUA- KONPROMISARIOEN EZOHICO BATZARRA

Ezohiko Batzartzat hartuko da aurreko artikuluen lehen paragrafoan aipatu ez diren gaiak eztabaidatu eta bozkatzea helburu duena.

23. ARTIKULUA- DEIALDIAREN EKIMENA

1.- Osoko Biltzarraren eta Konpromisarioen Batzarraren deialdiak egingo dira:

a) Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez, Estatutu hauetan eta indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Bazkide osoen ehuneko hamarra (%10) edo bazkide konpromisarioen heren bat ordezkatzeko duen bazkide oso baten ekimenez. Kasu horretan, Zuzendaritza-Batzordeak Batzarra deitu beharko du hogeita hamar (30) eguneko epean, deialdia egiteko eskatu zaion egunetik zenbatzen hasita, eta horren berri emango du deialdiaren iragarkian. Gai-zerrendan, gutxienez, eskaeraren xede izan diren gaiak sartuko dira. Eskatzaileei gutun ziurtatu bidez edo posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaie, egozten zaien eskaeraren berri emateko.

2.- Konpromisarioen Batzarra Osoko Bilkura bihurtzea, osorik edo zati batean, bozketarako gai jakin batzuk Batzarrera bidaliz, bi modutara gerta daiteke:

a) Konpromisarioen Batzarra deitu ondoren, baina hasi gabe, Batzarreko kideen herena ordezkatzeko duten konpromisarioen proposamenez edo bazkide osoen ehuneko hamarrek (%10) proposatuta. Gaiak Osoko Bilkurara bidaltzeko eskaera deialdia argitaratu eta hurrengo hamar (10) egunen barruan egin beharko da. Premiazko deialdien kasuan, epea zazpi (7) egunera murriztuko da.

b) Konpromisarioen Batzarraren bilkura hasi ondoren, Konpromisarioen Batzarrak berak hala erabakitzen duenean, boto-emateen gehiengo soilez. Gai horiek Osoko Bilkurara bidaltzeko bozketa Batzarreko Mahaiak berak proposatuta egingo da, edo Batzarreko kideen herena ordezkatzeko duten konpromisarioen proposamenez.

Bi kasuetan, Zuzendaritza-Batzordeak deitu beharko du Osoko Bilkura gai horietarako.

3.- Aurreko kasuaz gain, Konpromisarioen Batzarrerako deialdia egin ondoren, Batzarreko kideen ehuneko hamarra (%10) edo bazkide osoen ehuneko bi (%2) ordezkatzeko duten



konpromisarioek eskatu ahal izango dute, baita ere, elektronikoki, Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez erabakitako deialdiaren osagarri bat argitaratzea, hasierako Gai-zerrendan puntu bat edo gehiago gehituz. Hasierako Gai-zerrendako puntuak zabaltzeko eskaera deialdia argitaratu eta hurrengo hamar (10) egunen barruan egin beharko da. Premiazko deialdien kasuan, epea zazpi (7) egunekoa izango da. Horretarako, Zuzendaritza-Batzordeak eskubide hori gauzatzeko plataforma elektronikoa gaituko du, Gai-zerrendaren puntu berrien proposamenak kontsultatu ahal izateko eta epe horietan ekimen horietara elektronikoki atxiki ahal izateko.

24. ARTIKULUA- DEIALDIA EGITEKO ERA

- 1.- Batzar Nagusia, bai Osoko Biltzarra, bai Konpromisarioen Batzar Nagusia, Klubeko iragarki-taula elektronikoaren bidez deitu beharko da, bilera egiteko ezarritako eguna baino hogeita hamar (30) egun lehenago gutxienez, salbu eta premiazko Ezohiko Batzarra bada, non deialdia lehenago egin ahal izango den, gutxienez hamabost (15) egun lehenago.
- 2.- Egutegitzat joko dira egunak, deialdia argitaratzen den eguna eta Batzarra egiteko eguna kontuan hartu gabe.
- 3.- Iragarkiak, gutxienez, Batzarraren lehenengo deialdiko eguna, ordua eta lekua adieraziko ditu, baita bertan aztertu beharreko gai guztiak ere, baita Estatutu hauetako 32.4 artikuluan ezarritako Bazkideen informazio-eskubidea ere. Bertaratzea aldez aurretik jakinarazi beharko da bitarteko elektronikoen bidez, deialdi bakoitzean ezartzen diren baldintzetan, aurrez aurreko bozketa eta balizko boto-bikoiztasuna saihesteko.
- 4.- Iragarkiak, halaber, bertaratzeko eta botoa aurrez aurre emateko eskubidea edo Batzarrera bitarteko elektronikoen bidez baliatzeko modua adieraziko du.

25. ARTIKULUA- BATZARRA EGITEKO LEKUA

Konpromisarioen Batzarra, Zuzendaritza-Batzordeak hala aukeratuta, Bilbon, Lezamako udalerrian edo Bizkaiko Lurralde Historikoko beste edozein udalerritan egingo da, eta bilerak egun bat edo gehiagor jarraian luzatu ahal izango dira, Zuzendaritza-Batzordeak edo Batzar horretan bildutako guztien herena gutxienez ordezkatzan duten Bazkide Konpromisarioen kopuru batek eskatuta, eta deialdia ez den beste leku batera joan ahal izango dira, ezinbesteko kasuan, eta bertaratutakoek horren berri izango dute.

26. ARTIKULUA- BATZARREAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

- 1.- Konpromisarioak eta Estatutu hauetan aipatutako beste edozein pertsona joan ahal izango dira Batzarrera eta bertan parte hartu ahal izango dute.



- 16.- Batzordeak alegazio horiek aztertu ondoren, behin betiko txostena egingo da. Txosten hori Klubaren gardentasun-atarian argitaratuko da, eta Konpromisarioen Batzarra osatzen duten pertsonen eskura jarri beharreko dokumentuei erantsiko zaie.



IV. TITULUA- ARAUBIDE EKONOMIKOA

61. ARTIKULUA- AURREKONTUAREN ETA ONDAREAREN ARAUBIDEA

- 1.- ATHLETIC CLUB bere aurrekontu eta ondare araubidearen menpe dago.
- 2.- Estatutu hauetako 18. artikuluan aurreikusitako aurrekontua onartzen ez bada, gehienez laurogeita hamar (90) eguneko epean berriro azalduko da.
- 3.- Berriro azaldutako aurrekontua onartzen ez bada, onartutako azkena luzatuko da aurreko ekitaldietatik datozen urte anitzeko inbertsioei eta gastuei dagokienez, inoiz ez inbertsio berrietarako, betiere, hala badagokio, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak baliozkotutako aurrekontuari dagozkion egokitzapenekin.

62. ARTIKULUA- EKITALDI EKONOMIKOAREN IRAUPENA

Ekitaldi ekonomikoak urtean behin egingo dira: urte bakoitzeko uztailaren batean (1) hasi eta hurrengo urteko ekainaren hogeita hamarrean (30) amaituta.

63. ARTIKULUA- URTEKO KONTUAK

- 1.- Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Konpromisarioen Ohiko Batzar Nagusiak onartu beharreko gainerako kontabilitate-agiriak indarreko araudiaren arabera egin beharko dira.
- 2.- Urteko kontuak onartzen ez badira, beste Konpromisarioen Batzar bat egin beharko da laurogeita hamar (90) eguneko gehieneko epean. Urteko Kontu horiek bigarren Batzarrean ere onartzen ez badira, ulertuko da kontu horiek Klubaren ondarearen irudi fidela islatzen dutela, baldin eta hori bermatzen duen auditoria osagarri batekin eta Klubaren Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordearen aldeko txosten batekin batera badoaz, bai eta, jaulkitzea posible bada, Futbol Profesionaleko Liga Nazionalarena ere.
- 3.- Batzarrak ekitaldi bereko urteko kontuei bi aldiz jarraian uko egiten badie, Zuzendaritza-Batzordeak Osoko Bilkuraren konfiantza-arazoa egin ahal izango du edo dimisioa aurkeztu.

Zuzendaritza-Batzordeak Osoko Bilkuraren konfiantza lortzen badu, ulertuko da kontu horiek Klubaren ondarearen irudi fidela islatzen dutela, nahiz eta kontu horiekin batera auditoretza osagarri egin ez, ez eta Klubaren Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordearen aldeko txostenik ere. Osoko Bilkuraren konfiantza lortzen ez badute, hauteskundeetarako deialdia egin beharko da.

64. ARTIKULUA- MOZKINEN BANAKETA

ATHLETIC CLUBen diru-sarrera guztiak, kirol-adierazpenetan lortutako irabaziak barne, oso-osorik aplikatuko zaizkio bere xede sozialaren garapenari. ATHLETIC CLUBek ezin izango ditu mozkinak banatu bere bazkideen artean.



V. TITULUA- HAUTESKUNDE-ARAUDEA

65. ARTIKULUA- HAUTAKETA

Presidente eta Zuzendaritza-Batzordearen gainerako kideak lau urtean behin hautatuko dira, 38. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta Klubaren Osoko Bilkura osatzen dutenen boto pertsonal, zuzen eta isilpekoaren bidez. Estatutu hauetako 40. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

66. ARTIKULUA- HAUTAGAI-ZERRENDAK. ONDOREN SORTUTAKO INGURUABARRENGATIKO BAJAK

Zuzendaritza-Batzordeko kide izateko, Estatutu hauetako 38. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Hautagai-zerrendak aurkeztu ondoren bajak gertatzen badira, heriotzagatik, ezintasunagatik edo ondoren sortutako inguruabarrengatik, eta, horren ondorioz, aipatutako baldintzak betetzen ez badira, ordezkari hautagaiek beteko dituzte bajak, zerrendetan jartzen diren hurrenkeran.

67. ARTIKULUA- HAUTESLE IZATEKO BETEKIZUNAK

Hauteskundeen deialdian baldintza hauek betetzen dituzten bazkide osoak izango dira hautesleak:

- a) Adin nagusitasun zibila izatea.
- b) Eskubide Zibil guztiak edukitzea.
- c) Hauteskundeak deitzen direnean bazkide osoaren izaera etenda ez izatea.
- d) Hauteslea Hautesle-eroldan egotea.
- e) Klubarekiko betebeharrak ekonomikoak egunean izatea.

68. ARTIKULUA- KUDEAKETA-BATZORDEA

- 1.- Zuzendaritza-Batzordeko kide guztiek kargua uzten badute zentsura-mozioa onartzearen ondorioz edo Zuzendaritza-Batzordeko hasierako kide guztien ehuneko berrogeita hamar baino gehiagoren (%50) kargu-uztearen ondorioz, Zuzendaritza-Batzordea ordezkariak duen Kudeaketa-Batzordea eratuko da.
- 2.- Kudeaketa-Batzordea kargua uzten duen Zuzendaritza-Batzordeko kide guztiek osatuko dute.
- 3.- Kudeaketa-Batzordearen barruko erabakiak botoen gehiengo soilaz hartuko dira. Kudeaketa-Batzordeak Zuzendaritza-Batzordeari dagozkion administrazio-funtzioak beteko ditu, eta Klubaren ohiko jarduerari eusteko eta bere interesak babesteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren egintzetara mugatuko da.



4.- Kudeaketa-Batzordearen funtzio nagusia Zuzendaritza-Batzorde berria hautatzeko prozesua hastea izango da. Estatutu hauetan ezarritako hauteskunde-egutegiaren arabera, Zuzendaritza-Batzordeak kargua uzten duenetik gehienez hilabeteko epean egin beharko da deialdi hori.

69. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE-PROZESUAREN HASIERA

Estatutu hauetan adierazitako arrazoren batengatik Zuzendaritza-Batzordea kargutik kentzen bada, Hauteskunde Prozesua irekiko da.

70. ARTIKULUA- HAUTESKUNDEEN DEIALDIA

1.- Zuzendaritza-Batzordeak egingo du hauteskundeetarako deialdia, agintaldi naturala amaitzearen ondorioz egiten bada. Zuzendaritza-Batzordea Kudeaketa-Batzorde bihurtuko da, eta bere funtzioak beteko ditu hauteskunde-prozesuaren ondorioz Zuzendaritza-Batzorde berria karguaz jabetu arte.

2.- Gainerako kasu guztietan, Kudeaketa-Batzordeak deituko ditu hauteskundeak.

71. ARTIKULUA- DEIALDIAREN ARGITALPENA ETA INFORMAZIOA

1.- Hauteskunde-deialdia, gutxienez, Klubeko iragarki-taula elektronikoan iragarriko da.

2.- Deialdiak, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko du:

- a) Aurkeztu beharreko Hautagai-zerrendako kideen gutxieneko eta gehieneko kopurua, eta ondoren Hautagai-zerrenda bakoitzak muga horien barruan finkatuko du kopuru zehatza.
- b) Estatutuen arabera hautesle eta hautagai izateko baldintzak.
- c) Hautesle Errolda erakusteko epeak, eta errolda horrekin lotutako erreklamazioak izapidetzeko modua.
- d) Hautagaiak aurkezteko epea eta baldintzak.
- e) Abalak elektronikoki aurkezteko aukeraren eta abalen formatu elektronikoaren deskribapena.
- f) Hauteskunde eguna, lekua eta ordutegia. Ordutegia ez da sei ordutik beherakoa izango, ezta hamabi ordutik gorakoa ere.
- g) Hautesontzien kopurua.
- h) Hautesleak egiaztatzeako sistema.
- i) Bozketa elektronikoaren sistema.



72. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE-BATZORDEA

- 1.-Hauteskunde-Batzordeak bost (5) kide izango ditu. Klubeko bazkide oso guztien artean Konpromisarioen Batzar Nagusiaren barruan izendatuko direnak, baldin eta bazkide horiek boluntario gisa aurkezten badira edo beste bazkide oso batzuek proposatzen badituzte eta gutxienez hamar (10) urteko antzintasuna badute; prozedura beraren bidez zehaztuko dira bost ordezkioak. Hiru (3) titular bozketa bidez izendatuko dira, eta bi (2) pertsona titular zozketa bidez. Irizpide berari jarraituko zaio ordezkioak izendatzeko. Batzarrak aukeratutako pertsonen kasuan, boto gehien lortzen dituztenak izendatuko dira.
- 2.- Aukeratutako bi (2) pertsonak Zuzenbideko Lizentziatura edo Gradu titulua izan beharko dute, eta ospe edo esperientzia aitortua. Halaber, proposatutako pertsonen artean zozketaz izendatutako pertsona batek (1) prestakuntza akademiko hori ere izan beharko du. Hautagaiak artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela justifikatu beharko dute.
- 3.- Hauteskunde-Batzordea eratu ondoren, euren artean hautatuko dute Presidente, eta boto gehien lortzen dituen pertsona hautatuko da. Berdinketa gertatuz gero, bigarren bozketa egingo da, baina berdinketa duten pertsonen artean bakarrik. Klubaren edo antzeko funtzioak betetzen dituen enpleguaren idazkari nagusia izango da Idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.
- 4.- Zuzendaritza-Batzordeko Presidente edo kide izateko hautagairik ezin izango da Hauteskunde Batzordeko kide izan.
- 5.- Hauteskunde-Batzordearen helbidea hauxe da: Ibaigane Jauregia, Bilboko Mazarredo Zumarkalea 23.
- 6.- Emandako botoen gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak Hauteskunde-Batzordeak. Organo horretan edozein erabaki hartzeko, gutxienez kideen erdia gehi bat bertaratu beharko dira.
- 7.- Hauteskunde-Batzordeak, hauteskunde-prozesua bultzatzeaz eta behar bezala garatzen dela zaintzeaz arduratzen den aldetik, honako funtzio hauek izango ditu, gutxienez:
 - a) Hautesleen errolda onartzea.
 - b) Aurkeztutako hautagaitzak aldarrikatzea eta argitaratzea.
 - c) Hauteskunde mahaia izendatzea, hala badagokio.
 - d) Hautatutako hautagaiak aldarrikatzea.
 - e) Aurkezten zaizkion aurkaratzeak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea.
- 8.- Hauteskunde-Batzordeak Estatutu hauek esleitzen dizkieten eta hauteskundekoak ez diren beste funtzio guztiak ere beteko ditu.
- 9.- Hauteskunde-Batzordearen funtzioen iraupena lau (4) urtekoa izango da, eta epe horretan Klubeko hauteskunde-prozesuen inguruan sortzen diren arazo guztiei erantzun beharko die.



10.- Hauteskunde-Batzordeak hartzen dituen erabakiak jurisdikzio arruntean aurkaratu ahal izango dira.

73. ARTIKULUA- HAUTESKUNDE PROZESUA

1.- Hauteskunde prozesua Hauteskunde-Araudian ezarritakora egokituko da eta, nahitaez, baldintza hauen arabera garatuko da:

- a) Hauteskunde-deialdia iragarki-taula elektronikoa argitaratzen den egunean hasiko da.
- b) Hautagaiak aurkezteko epea egutegiko hamaikagarren egun naturalean hasiko da, eta iragarkia egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.
- c) Hautagaitzak zerrenda itxien sistemaren bidez bozkatuko dira, eta elektronikoki ere aurkeztu ahal izango dira. Aurkezteko baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira, Hauteskunde-Batzordeak beharrezkoak diren bermeak hartzeko duen ahalmenari kalterik egin gabe.
- d) Boto-eskubidea duten bazkide osoen ehuneko bostek (%5) sustatutako hautagaitzak onartuko dira. Presidentegai guztiek gutxienez hamar (10) urteko antzinasuna izan beharko dute hautagaiak aurkezteko epea hasten den egunean. Zuzendaritza-Batzordearen gainerako kideen kasuan, gutxienerako antzinasun hori bost (5) urtekoa izango da, etenik gabe.
- e) Bazkide bakoitzak gehienez ere bi (2) hautagaitza abalatu ahal izango ditu. Bi hautagaitza baino gehiago abalatz gero, abal-emailearen abal guztiak baliogabetuta geratuko dira.
- f) Hautagaiak aurkezteko epea hogeigarren egun naturaleko seietan (18.00) amaituko da, eta Estatutu hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak onartuko dira.
- g) Hauteskunde-Batzordeak aldarrikatuko ditu hautagai-zerrendak, hogeita bosgarren egun naturaleko seiak baino lehen (18.00). Hautagai-zerrenda guztiak zazpi egunez argitaratu beharko dira Klubaren iragarki-taula elektronikoa.
- h) Bozketak berrogeigarren egun naturalean egingo dira.

2.- Aurreko denbora-erreferentziak hasierako iragarkiaren biharamunetik aurrera zenbatuko dira.

74. ARTIKULUA- BOZKETA

1.- Bozketak isilpekoak izango dira, eta hauteskundeetarako deialdian ezarritako leku, egun eta ordu egun egingo dira.

2.- Aurrez aurreko bozketarako boto-txartelak Klubak editatuko ditu, eta berdin-berdinak izango dira tamainari eta koloreari dagokienez, hautagaitza guztientzat.



- 3.- Boto-txarteletan Zuzendaritza-Batzordeko kide guztien izena eta bi abizenak agertuko dira, eta hautatuak izanez gero zein kargu beteko duten ere adieraziko da.
- 4.- Aurrez aurreko bozketetan boto-txartelak Klubak horretarako ezarritako gutun-azal batean sartuko dira, eta bertan hauteskunde prozesu zehatzaren erreferentzia jasoko da.
- 5.- Hautesleek beren nortasuna egiaztatu beharko dute, hauteskundeetarako deialdiaren iragarkian ezarritakoaren arabera.
- 6.- Hauteskunde-Batzordeak onartutako behin betiko hauteskunde-errolan inskribatuta dauden hautesleek bakarrik erabili ahal izango dute botoa emateko eskubidea. Errolan agertzen direnek ezin izango dute botoa aurrez aurre eman, posta arruntez edo bitarteko elektronikoz emateko eskatu badute.
- 7.- Hautesleek mahai bakoitzeko arduradunari boto-orria duen gutun-azala emango diote, eta hori hautestontzian sartuko dute.
- 8.- Hauteskunde-Batzordeak, Zuzendaritza Nagusia bertan dela, botazioak bitarteko elektronikoen bidez egiteko arauak ezarriko ditu, Estatutu hauetan eta dagokion araudian ezarritakoaren arabera.

75. ARTIKULUA- POSTA-BIDEZKO EDO BITARTEKO ELEKTRONIKOZ BOZKATZEA

- 1.- Posta bidezko botoa onartuko da, baldin eta gutun-azalean gutxienez igorlearen datuak badaude, eta gutun-azalaren edukian boto-paper ofizialeko botoaren esanahia eta boto-emailearen sinadura agertzen badira, eta bazkide dela egiaztatzen duen txartel digitalaren fotokopia edo beste edozein identifikazio-agiri ofizial aurkezten bada.
- 2.- Boto-txartelak Hauteskunde-Batzordeak jasoko ditu, bozketak egiteko aurreikusitako eguneko zortziak (20:00) baino lehen.
- 3.- Hauteskunde-Batzordea arduratuko da postaz bidalitako boto guztiak zaintzeaz. Boto horiek itxita egongo dira aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera emandako boto guztiak zenbatu arte.
- 4.- Hauteskunde-Batzordeak bitarteko elektronikoen bidez bozkatzeko baldintzak onartzeko dituen eskumenei kalterik egin gabe, Zuzendaritza-Batzordeak beharrezko neurri teknikoak hartu beharko ditu, gehienez ere hiru (3) urteko epean, honetarako:
 - a) Zuzendaritza-Batzordea hautatzeko prozesuan bitarteko elektronikoen bidez bozkatzeko aukera ematea, aurrez aurreko bozketaren aldi berean.
 - b) Informazio-eskubideak bermatzea.
 - c) Botoa jaso dela modu frogagarrian jasota uztea.
 - d) Hauteslearen identifikazioa, benetakotasuna eta botoaren isilpekoa bermatzea.



- e) Botoaren bikoiztasuna eragozte.
- f) Boto-zenbaketaren unean botoa sartzen dela bermatzea.

76. ARTIKULUA- BOTO-ZENBAKETA

- 1.- Bozketak egiteko aurreikusitako denbora amaitu ondoren, Hauteskunde-Batzordeak boto-zenbaketaren hasiera erabakiko du hautestontzi bakoitzean. Aurrez aurreko botoen zenbaketa amaitutakoan, posta arruntez eta elektronikoki emandako botoak zenbatuko dira. Ondoren, hautestontzi guztien emaitzak eta posta arruntez eta elektronikoz emandako botoak oro har zenbatuko dira. Zenbaketa horrek, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko ditu:
 - a) Boto-eskubidea duten bazkide osoen kopurua.
 - b) Boto-eskubidea baliatu duten bazkideen kopurua.
 - c) Aurrez aurre emandako botoen kopurua.
 - d) Posta arruntez emandako botoen kopurua.
 - e) Elektronikoki emandako botoen kopurua.
 - f) Hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako baliozko botoak, guztira.
 - g) Boto zuriak, guztira.
 - h) Boto baliogabeak, guztira.
- 2.- Baliogabetzat joko dira Klubak emandakoez bestelako boto-txartel edo artxibo elektronikoetan ematen direnak eta zuzenketak edo ezabaketak dituztenak. Halaber, baliogabetzat joko dira Klubak ezarritakoak ez diren gutun-azaletan uzten direnak eta horretarako emandako jarraibideak betetzen ez dituzten agiri elektronikoak.

77. ARTIKULUA- HAUTAGAITZA IRABAZLEAREN JAKINARAZPENA ETA KARGUAZ JABETZEA

- 1.- Boto-zenbaketa amaitu eta Hauteskunde-Batzordeak akta sinatu ondoren, hautagaitza irabazlea izendatuko da.
- 2.- Boto gehien lortzen duen hautagai-zerrenda izango da irabazlea. Boto gehien lortu dituzten hautagai-zerrendetan berdinketa gertatuz gero, berdinduta dauden hautagai-zerrendekin errepikatuko da bozketa.
- 3.- Boto-zenbaketa amaitu eta Hauteskunde-Batzordeak akta sinatu ondoren, hautagaitza irabazlea aldarrikatuko da.
- 4.- Hautagai-zerrenda bakarra badago, bozketa egin beharrik gabe aldarrikatuko da.
- 5.- Zuzendaritza-Batzorde berriak, kargua hartzeko, banku-aurreabal nahikoa aurkeztu beharko du hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, hautagai-zerrenda irabazlea aldarrikatu



eta hilabeteko (1) gehieneko epean. Hauteskunde-Batzordeko Presidentearen aurrean karguaz jabetzearekin batera, organo horrek banku-aurreabalararen gordailua bermatu beharko du, eta aurreko Zuzendaritza-Batzordearen ahalorde guztiak automatikoki baliogabetuko dira.

- 6.- Karguaz jabetzeko egunak agintaldia hasia dakar, baina horrek ez du esan nahi beste hauteskunde batzuk egiteko lau (4) urteko epea zenbatzen hasiko ez denik aldarrikatzea eta karguaz jabetzea ekarri duten bozketak egiten diren egunetik.

VI. TITULUA- DIZIPLINA-ARAU-BIDEA

78. ARTIKULUA- KLUBAREN DIZIPLINA-AHALA

- 1.- Klubaren ahalmena da Estatutu hauetan tipifikatutako bazkideek egindako arau-haustek zuzentzea.
- 2.- Estatutu hauek garatzeko erregelamenduzko xedapenek honako alderdi hauek aurreikusi beharko dituzte, gutxienez, Klubak diziplina-ahala erabiltzeari dagokionez:
 - a) Diziplina-prozeduretan aplikatu beharreko printzipioak.
 - b) Diziplina-erantzukizuna azkentzeko eta eteteko araubidea.
 - c) Zehapenak betearazteko arauak.
 - d) Prozeduren hasieraren gutxienerako edukia.
 - e) Espedientatutako bazkideen eskubideak.
 - f) Interes legitimoa duten pertsonak agertzea.
 - g) Diziplina-espedienteak metatzeko eta banatzeko araubidea.
 - h) Jakinarazpenen araubidea.
 - i) Diziplina-organoen funtzionamendua.

79. ARTIKULUA- DIZIPLINA-AHALA ERABILTZEKO ESKUMENA DUTEN ORGANOAK

Diziplina-ahala lehen instantzian Diziplina-Batzordeari dagokio, eta haren erabakien aurka helegitea aurkez daiteke Apelazio-Batzordean.

80. ARTIKULUA- ARAU-HAUSTEAK

- 1.- Arau-hauste arinak dira:



- a) Bazkideek legearen, Estatutuen eta Araudien, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza-Batzordearen erabakien edo elkarte-bizikidetzako arau orokorren aurka egindako ekintzak edo ez-egiteak, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzea merezi ez dutenak.
- b) Beste bazkide batzuekin, Klubeko organoetako kideekin, Klubeko langileekin, kirol-agintariekin eta beste edozein pertsonarekin zuzenketa arinen eza.
- c) Kirol-agintariek eta/edo batzordekideek, Klubeko langileek edo segurtasun-langileek emandako aginduak eta jarraibideak arrazoirik gabe ez betetzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo ezin denean.
- d) Klubaren baliabide ekonomikoak edo materialak oker erabiltzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzea merezi ez duenean.
- e) Klubaren txartel elektronikoa edo Klubak antolatutako kirol-ekitaldi batean sartzeko txartela baimenik gabe lagatzea, edo Klubak parte hartzen duenean, artikulu honetan aurreikusitako baldintzak gertatzen ez direnean lagapena arau-hauste larri-tzat edo oso larritzat jotzeko.

2.- Arau-hauste larriak dira:

- a) Bazkideen ekintzak edo ez-egiteak, legearen, Estatutuen edo erregelamenduen aurkakoak, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza-Batzordearen erabakien kontrakoak, baldin eta garrantzi publikoa badute edo Klubaren irudiari, beste bazkide batzuei, Klubeko organoetako kideei edo langileei kalte materialak eragiten badizkiete.
- b) Beste bazkide batzuekin, Klubeko organoetako kideekin, Klubeko langileekin, kirol-agintariekin eta hirugarren pertsonarekin ez zuzentzea, baldin eta, beren egoera dela-eta, ez bada arintzat edo oso larritzat jotzen.
- c) Kirol-agintariek eta/edo zuzendariak, klubeko langileek edo segurtasun-langileek emandako aginduak eta jarraibideak arrazoirik gabe ez betetzea, haien baldintzak direla-eta arau-hauste arintzat edo oso larritzat jotzea merezi ez dutenean.
- d) Klubaren baliabide ekonomikoak edo materialak oker erabiltzea, bere baldintzak direla-eta arau-hauste arin edo oso larritzat jotzea merezi ez duenean.
- e) Klubaren txartel digitala kostu bidez lagatzea. Horretarako, kostu bidezko lagapentzat hartuko da kontraprestazio ekonomiko bat jasotzea dakarren lagapen oro, diruzkoa zein gauzazkoa izan.
- f) Partida, proba edo lehiaketa batean indarkeriarekin, arrazismoarekin, xenofobiarekin edo intolerantziarekin lotutako betebeharrak betetzean arduragabekeria larritz jotzea, eta ekintza horien erantzuleen identitatea agerian jartzea eta ikerketan laguntza larririk ez ematea.
- g) Kirol-ikuskizunak egiteko arauak larriki ez betetzea, baldin eta horiek normaltasunez garatzea eragozten badu edo parte-hartzaileei edo ikusleei kalteak eragiten badizkie, eta, baldintzak direla-eta, arau-hauste oso larritzat jotzea merezi ez badu.



- h) Klubeko instalazioetan edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzen duenean, indarrean dagoen araudiak debekatutako substantzia sorgogarri, psikotropiko edo antzekoak sartzea, saltzea, kontsumitzea edo edukitzea. Tabakoaren kasuan, salmenta bakarrik hartuko da arau-hauste larritzat.
- i) Bazkide diren beste pertsona batzuk edo kirol-ikuskizun batera joaten diren ikusleak iraintzea.
- j) Arau-hauste arinetan berriro erortzea.

3.- Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Bazkideak kargurako edozein kontzeptu ekonomiko Klubari ordaintzeko, itzultzeko betebeharra ez betetzea, bazkide-kuotari dagozkionak izan ezik, horiek bazkide izaera galtzea baitakarte, Estatutu hauen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Klubari zehapen ekonomikoa edo bestelakoa ezartzea dakarten jokabideak egitea.
- c) Bazkideak legearen, Estatutuen edo Erregelamenduen, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza-Batzordearen erabakien aurka egindako edozein ekintza edo ez-egite, engainua edo fede gaiztoa dagoenean.
- d) Bazkideek legearen, Estatutuen edo Erregelamenduen, Zuzendaritza-Batzordearen Batzar Nagusiaren erabakien aurka egindako edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta garrantzi publiko handia badu; garrantzi hori duela ulertuko da ekintza komunikabideetan hedatzen bada, elkarte-esparrutik kanpo geratzen bada eta ezagutza orokorrera iristen bada.
- e) Bazkideak legearen, Estatutuen edo Erregelamenduen, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza-Batzordearen erabakien aurka egindako edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta kalte material edo moral garrantzitsuak eragiten badizkie Klubari, beste bazkide batzuei, jokalariei, teknikariei edo Klubeko enplegatuei.
- f) Kargua dela-eta ezagutzen diren gaietan isilpekoa urratzea.
- g) Klubeko kide anitzeko organoen bilkuren, hauteskundearen, zentsura-botoaren edo emaitzen garapen normala eragozteko, nahasteko, aurrez zehazteko edo aldatzeko edozein ekintza.
- h) Partida, proba edo lehiaketa baten garapen normala larriki aldatzen duten jokabideak, edo behin betiko edo aldi baterako bertan behera uztera behartzen dutenak.
- i) Zuzenean edo zeharka indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo intolerantzia edo eremu horretan prebentziozko lege-arauak haustea eragiten duten ekintzak, adierazpenak eta jokabideak.
- j) Klubeko instalazioetan edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzen duen esparruetan, sarrerak saltzeko sistemari, esparrutik kanpo



aurkarien zaleak bereizteari eta dauden debekuak betetzeko sarbide-kontrolari buruz ezarritako arauzko eta Estatutuko arauak urratzea.

- k) Klubeko instalazioetan edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzeko duen esparruetan, pankartak edo ikurrak sartzea edo erakustea, baldin eta, edukiagatik edo erakusteko edo erabiltzeko baldintzengatik, indarkeriazko jokabideak, arrazistak, xenofoboak edo pertsona intoleranteak sustatzen edo laguntzen baditu.
 - l) Klubeko instalazioetan edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzeko duenean, arma edo efektu berberak eragin ditzaketen objektu guztiak sartzea, aktibatzea edo jaurtitzea, baita bengalak, petardoak, lehergaiak edo, oro har, produktu sukoiak, fumigenoak edo korrosiboak ere.
 - m) Liskar, borroka edo desordena publikoetan parte hartzea Klubaren instalazioetan edo esparruetan, edo Klubeko talde batek partida, proba edo lehiaketa bat jokatzeko duen lekuetan, edo batzuen zein besteen inguruetan, baldin eta pertsonen edo ondasunen kalte edo arrisku larria eragiten badiete.
 - n) Klubeko altzarietan, instalazioetan edo esparruetan, altzarietan edo Klubeko talde batek partida bat jokatzeko duen esparruetan nahita kalteak eragitea.
 - o) Klubaren jarduerekin zerikusia duten ospakizun, bilera edo antzeko ekintza kolektiboetan indarkeriaz parte hartzea, ekitaldi horiek Klubak antolatzen dituen edo ez alde batera utzita.
 - p) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea edo arau-hauste arinak berriro egitea, arrazoi horrengatik zehapen larria ezarri bada.
- 4.- Arau-hausteen larritasuna zehazteko, kontuan hartuko dira baldintza hauek: hirugarrenei gorputz-lesioak eragitea; Klubari edo bazkideei kalte ekonomikoak edo irudia eragitea; Klubari zehapenak ezartzea; arau-haustea erabilitako eginbidea; kaltetuen kopuru handia edo txikia; ekintzaren izaera, eta, oro har, diziplina-organoak arau-hauste oso arintzat tipifikatzen dituen gainerako baldintza guztiak.
- 5.- Aurreko arau-haustetatik eratorritako diziplina-erantzukizun asoziatiboa ez dator bat kirol-agintariak eska dezaketen kirol-diziplinako erantzukizunarekin edo justizia-auzitegien aurrean garbitu daitekeen erantzukizun zibil edo penalariekin.
- 6.- Artikulu honen ondoreetarako, berriro erori dela hartuko da zehapena preskribatu aurretik edozein arrazoiengatik diziplinazko zehapena jaso duen bazkide baten arau-hauste berria.

81. ARTIKULUA- ZEHAPENAK

- 1.- Diziplinazko arau-hauste arinak direla-eta, zehapen hauek ezarri ahal izango dira:
- a) Ohartarazpen pribatua.



- b) Bazkide izaera etetea hamabost (15) eta laurogeita hamar (90) egun bitartean.
- 2.- Diziplinazko arau-hauste larriengatik ezar daitezkeen zehapenak honako hauek izango dira:
 - a) Ohartarazpen publikoa. Ohartarazpena Klubaren webgunean argitaratuko da.
 - b) Bazkide izaera etetea laurogeita hamaika (91) egunetik hirurehun eta hirurogeita bost (365) egunera.
- 3.- Diziplinazko arau-hauste oso larriengatik ezar daitezkeen zehapenak honako hauek izango dira:
 - a) Bazkide izaera etetea hirurehun eta hirurogeita sei (366) egunetik egunetik hiru (3) urtera.
 - b) Bazkide izatea galtzea.
- 4.- Diziplina-Batzordeak eta Apelazio-Batzordeak erantzukizuna salbuesten, arintzen eta larritzen duten inguruabarrak kontuan hartuta mailakatuko dituzte zehapenak, Zigor Kodean arautzen direnen antzera.
- 5.- Nolanahi ere, edozein diziplina-zehapen ezartzeak ez du salbuetsiko arau-hauslea Klubari edo hirugarrenei eragindako kalteak itzultzeko edo kalte-ordaina emateko betebeharretik.
- 6.- Bazkide izaera eteteko zehapenak ez du berekin ekarriko kuotak osorik edo zati batean itzultzea, ez eta etenaldian bidezko diren kuotak ordaintzeko betebeharretik salbuestea ere.

82. ARTIKULUA- ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN PRESKRIPZIOA

- 1.- Falta arinak sei (6) hilabeteko epean preskribatuko dira, larriak bi (2) urteko epean, eta oso larriak hiru (3) urteko epean, falta egin den egunetik zenbatzen hasita.
- 2.- Diziplina-ahala duen organoak diziplina-jarduerak hasiz gero edo diziplina-espedientea hasiz gero, preskripzioa eten egingo da bazkide osoari dagokion jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera.
- 3.- Zehapen arinak betearazteko eskubidea sei (6) hilabete igarotakoan preskribatuko da; larriak, bi (2) urte igarotakoan, eta oso larriak, hiru (3) urte igarotakoan.

83. ARTIKULUA- DIZIPLINA-PROZEDURA

- 1.- Titulu honetan jasotako zehapenak ezarri aurretik, diziplina-espediente bat izapidetuko da, honako arau hauen arabera:
 - a) Diziplina-Batzordeak, arau-hauste baten berri izan bezain laster, diziplina-espedientea hastea erabakiko du, eta bere kideen artean instruktore bat izendatuko du. Erabaki hori modu frogagarrian jakinaraziko zaio eragindako bazkideari, eta horrek, hurrengo egunetik kontatzen hasita bost (5) egun balioduneko epean, Diziplina-Batzordeko edozein kide ezetsi ahal izango du, batzordeari zuzendutako idazki baten bidez, Botere Judizialaren uztailaren



1eko 6/1985 Lege Organikoan edo hura ordeztzen duen xedapenean epaile eta magistratuentzat ezarritako edozein arrazoiengatik. Apelazio-Batzordeak berak ebatziko du errefusatzea.

- b) Zehapen-prozedura hasi ondoren, Diziiplina-Batzordeak egoki iritzitako kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu, espedienteak ireki zaion bazkidearen eskubideak etetea barne.
- c) Zehapen-prozedura hasi ondoren, Instruktoarak, ofizioz, ekintzak zehazteko eta egiaztatzeke eta zeha daitezkeen arau-haustea finkatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak eta frogak guztiak gauzatzea xedatuko du.
- d) Instruktoarak dagozkion eginbideak egin ondoren, Instruktoarak espediente osoa espedientepekoaren eskura jarri ahal izango du, eta frogaldia irekita dagoela deklaratu du, espedientepekoak dagozkion frogak egitea proposa dezan. Zehapen-prozedurarako garrantzitsuak diren egitateak zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez egiaztatu ahal izango dira. Frogak ukatzeko arrazoiak eman beharko dira beti. Probak egiteko epea, hasiera batean, egutegiko hamabost (15) egunekoak izango da; nolana ere, epe horretan frogak egitea eragozten edo zailtzen duten baldintzak daudenean, epe hori luzatu ahal izango da.
- e) Froga-fase hori amaitu ondoren, espedientearen instruktoarak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio espedienteari, eta hark alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hamar (10) egun naturaleko epean, ebazpen-proposamena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ebazpen-proposamena largespena edo kargu-orriarena izan daiteke.
- f) Instruktoaren ebazpen-proposamenari dagozkion alegazioak egin ondoren, edo alegazio-epea igaro ondoren, instruktoarak helaraziko dio espediente osoa Diziiplina-Batzordeari, eta horrek erabakiko du espedienteak artxibatu edo dagozkion zehapena ezarri. Ebazpena gehiengo soilez hartuko da, eta modu frogagarrian jakinaraziko zaio espedientepekoari eta espedientearen agertutako beste edozein pertsonari.
- g) Zehapen-ebazpena ezin izango da espedientepekoaren interesentzat kaltegarriagoa izan kargu-orrian jasotako zehapen-proposamena baino. Baldin eta Diziiplina-Batzordeak uste badu arau-haustea edo bidezko zehapena kaltegarriagoa dela espedientepekoarentzat, hari jakinarazi beharko dio, eta alegazio-epe berri bat eman.
- h) Diziiplina-Batzordearen ebazpena absoluziozkoa izan daiteke; kasu horretan, largespena edo espedienteak artxibatzea xedatuko da, edo, bestela, zehapenekoak; kasu horretan, ezartzen zaion zehapena ezarriko da. Bi kasuetan, ebazpena arrazoitu egin beharko da espedientepekoari eta espedientearen agertzen den pertsona orori modu frogagarrian jakinarazita, eta bidezkoak diren helegiteen eta horiek jartzeko epearen berri emanda.
- i) Espedienteak hasteko erabakiaren eta espedientearen amaieraren artean ezingo dira laurogeita hamar (90) egun natural baino gehiago igaro. Epe hori igarotzen bada dagozkion



ebazpenik eman gabe, espedientea iraungi egingo da, eta horrek ez du eragotziko espediente berri bat hastea, ustezko arau-haustea preskribatu ez bada.

- j) Espediente hasteko erabakiaren eta espedientearen amaieraren artean ezingo dira laurogeita hamar (90) egun natural baino gehiago igaro. Epe hori igarotzen bada dagokion ebazpenik eman gabe, espediente iraungi egingo da, eta horrek ez du eragotziko espediente berri bat hastea, ustezko arau-haustea preskribatu ez bada.

- 2.- Bazkideari jakinarazteko lehenengo saiakerak huts egiten badu, beste saialdi bat egingo da. Bigarren saiakerak ere emaitzarik ez badu, iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da.

84. ARTIKULUA- ZEHAPENEN AURKAKO HELEGITEAK

- 1.- Diziplina Batzordeak emandako ebazpenen aurka helegitea jarri ahal izango da Apelazio-Batzordean, eta Batzorde horrek emandako ebazpena apelaezina izango da elkartearen barne-bidean. Helegite hori idatziz aurkeztu beharko da hamabost (15) egun naturaleko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- 2.- Dagokion diziplina-espedientearen bidez ezarritako zehapenak berehala betearaziko dira, eta helegiteak ez du betearazpena geldiaraziko edo etengo, hargatik eragotzi gabe beste instantzia batzuek egoki iritzitako kautela-neurriak hartzeko dituzten ahalmenak.
- 3.- Apelazio-Batzordeko kideak Estatutu hauetako 83.a) artikuluan aipatutako arrazoi berberengatik errekusatu ahal izango dira, berorri zuzendutako idazki baten bidez, bost egun balioduneko epean, zehapena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Apelazio-Batzordeak berak ebatziko du errefusatzeari.
- 4.- Apelazio-Batzordeak 30 egun naturaleko epean eman beharko du ebazpena, apelazio-helegitea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta bere ebazpenean erabaki ahal izango du:
 - a) Diziplina-Batzordeak emandako ebazpena erabat errebokatzea, interesduna absolbitzea eta espediente artxibatzea.
 - b) Diziplina-Batzordeak emandako ebazpena partzialki baliogabetzea, arau-haustearen kalifikazioa murriztuz edo, horri eutsiz, zehapena murriztuz.
 - c) Diziplina-Batzordearen ebazpena osorik berrestea.
- 5.- Apelazio-Batzordeak ezin izango du arau-haustearen kalifikazioa edo Diziplina-Batzordeak ezarritako zehapena larriagotu.
- 6.- Apelazio-Batzordearen ebazpenen aurka, elkartearen barne-bidea agortuko dutenak, ezin izango da helegiterik jarri federazioen aurrean, ez eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean ere; nolanahi ere, aurkaratzea jar daiteke jurisdikzio arruntean.



85. ARTIKULUA- ZEHAPENEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOA

1.- Diziplina-Batzordeak ezartzen dituen zehapen guztiak, irmo bihurtzen direnean, Zehapenen Erregistro Elektronikoa jasoko dira.

2.- Zehapenak kendu egingo dira Zehapenen Erregistro Elektronikotik, dagokion zehapena ezarri zenetik preskripzio-epea igaro ondoren.

VII. TITULUA- DOKUMENTUEN ARAUBIDEA

86. ARTIKULUA- KLUBAREN ERREGISTRO DOKUMENTALAK

1.- Estatutu hauetan aipatzen diren kontabilitate-liburuak alde batera utzita, ATHLETIC CLUBek honako erregistro hauek izango ditu:

A. Bazkideen Erregistroa.

Sistema informatiko bidezko erregistro bat izango da, eta bertan Klubeko bazkide osoak inskribatuko dira, onarpen-hurrenkeraren arabera. Erregistro horretan datu hauek jasoko dira:

- a) Izena eta bi abizen.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren edo beste edozein identifikazio-agiri ofizial bat.
- c) Jaioteguna.
- d) Helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- e) Sarrera-data.
- f) Bazkide- eta kode-zenbakia. Bazkide bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio antzinasun-hurrenkeraren arabera, eta zenbaki hori urte bakoitzeko otsailean eguneratuko da, izandako bajen arabera.
- g) Bazkidearen bajaren eguna eta arrazoia.
- h) Bazkide oso izateko lehentasunezko eskubidea erabil dezakeen pertsonaren identifikazioa.
- i) Oharrak. Oharren atalean jasoko dira, besteak beste, bazkideak Klubeko organoetan bete dituen karguak, horien iraupena adierazita, ezarri diren eta preskribatu ez diren zehapen irmoak, bazkide-izaera etetea eta horren iraupena.

B.- Konpromisarioen Batzarra eta Osoko Bilkuraren aktak erregistratzea.

Sistema informatiko bidezko erregistro bat izango da, non Konpromisarioen Batzarraren eta Osoko Bilkuraren aktak jasoko diren gutxieneko eduki honekin:

- a) Non eta noiz egingo den.



- b) Bertaratutako pertsonen kopurua eta identifikazioa.
- c) Aztertutako gaien laburpena.
- d) Hartutako erabakiak, horretarako egindako bozketen emaitza adieraziz.

C.- Zuzendaritza-Batzordearen akten erregistroa.

Sistema informatiko bidezko erregistro batean jasoko dira Zuzendaritza-Batzordearen bileren aktak, eta bertan jarriko dira:

- a) Bileraren lekua eta data.
- b) Bertaratutakoak.
- c) Aztertutako gaien laburpena.
- d) Hartutako erabakiak, bozketen emaitzak adieraziz.

D.- Klubeko gainerako organoen akten erregistroa.

Estatutu hauetan jasotako Klubeko gainerako organoek eta Zuzendaritza-Batzordeak sortzen dituen batzordeek dagozkien akta-erregistroak izango dituzte, eta Estatutu hauetan ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

VIII. TITULUA- ERREFERENDUMA ETA BESTE PARTAIDETZA-PROZESU BATZUK

87. ARTIKULUA- ERREFERENDUMA

- 1.- Klubaren garrantzi bereziko gaiei buruz erreferendumen deialdiaren bidez kontsultak jasotzeko eskubidea izango dute gutxienez urtebeteko antzintasuna duten bazkide adindunek.
- 2.- Erreferendumak Osoko Bilkuraren bidez bideratuko dira, eta bazkide osoek, konpromisarioek eta Zuzendaritza-Batzordeak eskatuta deituko dira, Estatutu hauetako 23. artikuluan ezarritako baldintzekin.
- 3.- Galderaren edo galderen edukia edo bazkideen erantzun-aukeren edukia Zuzendaritza-Batzordeak finkatuko du, deialdiaren ekimena bazkideei edo Konpromisarioen Batzar Nagusiko kideei dagokienean izan ezik. Azken kasu horietan, eduki hori bazkideen proposamenean bertan edo Batzar horrek hartutako erabakian ezarri beharko da.
- 4.- Prozedura berean gai bat edo gehiago ezarri ahal izango dira erreferendumean, baita printzipioz Konpromisarioen Batzarraren eskumenekoak diren gaiei buruzkoak ere.
- 5.- Erreferenduma Zuzendaritza-Batzordeak deitu beharko du, hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, hala erabakitzen duen Konpromisarioen Batzarra egiten denetik edo Hauteskunde-Batzordeak Estatutuetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duenetik zenbatzen hasita.



6.- Erreferenduma egin baino hilabete bat (1) lehenago iragarri beharko da, gutxienez, Klubaren webgunean; nolanahi ere, Zuzendaritza-Batzordeak egoki iritzitako beste bitarteko osagarri batzuen bidez ere zabaltu ahal izango da. Zuzendaritza-Batzordeak bermatu beharko du bazkide guztiek izango dutela, deialditik, kontsultaren xede den gaiari buruzko informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko aukera.

7.- Erreferendum bidezko kontsulta Osoko Bilkura osatzen duten bazkide oso guztien botoen bidez erabakiko da, boto libre, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez.

8.- Erreferendumaren emaitza loteslea izango da, eta ATHLETIC CLUBeko organo eta bazkide guztiek nahitaez bete beharko dute. Ezin izango da gai berari buruzko edo antzeko beste erreferendum baterako deialdirik egin hura egin eta bost (5) urteko epean. Ez da loteslea izango Osoko Bilkuraren eskumen eskusibokoak diren gaiari buruzko kontsultak egitea, baldin eta gutxienez bazkide osoen ehuneko hogeita hamarrek (%30) parte hartu ez badute.

9.- Aurrekontuei buruzko erreferenduma egiten bada edo bazkideei derramak eskatzen bazaizkie, Zuzendaritza-Batzordearen agintaldian ezin izango da era bereko proposamenik erreferendumera eraman.

10.- Zuzendaritza-Batzordeak erreferendumean adierazitako giza-borondatea behar bezala gauzatzeko behar diren prozedurak antolatu beharko ditu.

11.- Erreferendumean boto gehien lortzen dituen aukera erreferendumaren emaitza zehazten duena izango da, eta ez da gehiengo kualifikaturik eskatuko.

12.- Erregelamendu bidez arautuko dira deialdia, garapena, bozketa, boto-zenbaketa eta emaitzen aldarrikapena. Erregelamendu hori onartzen ez den bitartean, Estatutu hauetan Zuzendaritza-Batzordea hautatzeko prozedurari buruz aurreikusitakoa aplikatuko zaio erreferendumari.

13.- Hauteskunde-Batzordea arduratuko da erreferendumaren garapen egokia zaintzeaz, eta, azken batean, erreferenduma Zuzenbidearekin bat datorrela bermatuko du.

14.- Zuzendaritza-Batzordeak protokolo tekniko segurua prestatu beharko du, erreferendum horietan bazkide osoen parte-hartze elektronikoa errazteko.

88. ARTIKULUA- KONTSULTA EZ-LOTESLEA

1.- Erregelamendu bidez arautuko da Klubaren garrantzi bereziko gaiari buruzko kontsulta ez-lotesleen deialdia. Ekimena eta deialdiaren formalizazioa, funtsean, kontsulta lotesleen araubidera egokituko dira.

2.- Kontsulta ez-loteslean parte hartzeko eskubidea izango dute kontsulta-deialdian zehazten diren pertsona guztiek; beraz, kontsultak bazkideen kolektibo jakin batzuei zuzendu ahal izango zaizkie, baita Klubarekin nolabaiteko loturak dituzten baina boto-eskubidea duten bazkide oso



bihurtu ez diren pertsonen ere (kideak duten pertsonak, adingabeak, itzarote-zerrendan bazkide oso izateko eskaerak dituzten pertsonak eta antzeko egoerak).

89. ARTIKULUA- BESTE PARTAIDETZA-PROZESU BATZUK

1.-Erregelamendu bidez antolatuko dira aurreko aginduetan araututakoez bestelako partaidetza-modalitate edo -tresnak.

2.- Partaidetza-prozesu bakoitza amaitu ondoren, Zuzendaritza-Batzordeak prozesu horiek ebaluatzen prozedura bat zabalduko du, eta prozedura hori ondorio batzuekin amaituko da, eta, hala badagokio, hobetzeko proposamen batzuekin, etorkizuneko prozesuei begira.

3.- Zuzendaritza-Batzordeak kideen parte-hartzea sustatuko duen gunea jarriko du bere webgunean, ideiak, iritziak, iradokizunak eta antzeko ekintzak emanez.

4.- Zuzendaritza-Batzordea saiatuko da:

- a) Bazkideen, kideak duten pertsonen, peñen eta beste pertsona eta kolektibo batzuen partaidetza sustatu eta bultzatzea Klubaren gaitan.
- b) Elkarrekin parte hartzeko kulturaren sendotasuna sustatzea.
- c) Partaidetza-prozesuak ordezkari-partaidetzaren tresna osagarri gisa eta gobernantza onerako tresna gisa eratzeko.
- d) Bazkideek eta gainerako taldeek partaidetza-prozesuetan berdintasun-baldintzetan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea.
- e) Parte-hartzaileek behar adinako informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatzea.

IX. TITULUA- KLUBA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

90. ARTIKULUA- DESEGITEAREN ARRAZOIAK

1.- Kluba kasu hauetan desegingo da:

- a) Sozietatearen helburua betetzea nabarmen ezinezkoa delako.
- b) Organoak geldiarazten direlako.
- c) Beste kirol-klub batekin fusionatzeagatik.
- d) Beste klub batek xurgatu duelako.
- e) Klubean sartzean edo parte-hartzean sexuagatiko diskriminazio larria egiteagatik, baldin eta diskriminazio hori agintari eskudunek eskatu ondoren eteten ez bada.



- f) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.
- 2.- ATHLETIC CLUB beste mota bateko erakunde bihurtzeak ez du desegitea eta likidatzea ekarriko, erregistroan ezerezteak baizik.
- 3.- Halaber, Kluba Konpromisarioen Batzarrak hartutako aldeko erabakiaren bidez desegingo da, konpromisarioen bi herenen gehiengoaz. Erabaki hori Osoko Bilkurak berretsi beharko du, erabateko eraginkortasuna izan dezan, baita Batzarra osatzen duten bazkide osoen bi herenek ere.

91. ARTIKULUA- LIKIDATZAILEAK IZENDATZEA

